

Kontzeju

Oñatiko Udaltzainak | 2015eko Urtia | 254. zenbakia



www.oñati.eus



Oñati 360º



@Oñati360



Oñati TV



Oñati RSS

DEGIK



Liztor Beltza

32 habia suntsitu dituzte Oñatin

Liztor asiarraren 32 habia suntsitu dituzte Oñatin

GIPUZKOA OSOAN BEZALAXE, OÑATIN
ERE UGARITUZ DOA LIZTOR ASIARRA.

AURTEN, DAGOENKO, 32 HABI KENDU DITUZTE,
IAZ GARAI BEREAN BAINO DOZENA BAT GEHIAGO.
IRAILA ETA URRIA DIRA HILABETERIK TXARRENAK
BERTAKO ERLEENTZAT, ORDUAN ERASOTZEN BAITU
GEHIEN VESPA VALUTINAK

Bost urte dira lehen liztor asiarrak Euskal Herrian agertu zirela, eta euskal erlezainen alarmek piztuta jarraitzen dute, Txina, India eta Indonesia aldean jatorria duen *Vespa velutina* izeneko espezie inbaditzaile honek jan egiten baitu hemengo erlea, eta, gainera, ugalkortasun handia du.

Horren aurrean, administrazioa eta erlazainen elkarteak hainbat neurri hartzen ari dira liztor beltzari aurre egiteko, baina oraingoz ez dira nahi bezain eraginkorrak gertatu. Oñatin bertan, esaterako, ekaina eta iraila bitartean 32 habi agertu dira, iaz baino 12 gehiago.

Ekainean agertu ziren liztor beltzaren lehen habiak Oñatin. Garai horretan habia txikiak izaten dira oraindik, eta babeslekuetan egoten dira (teilatu azpiak, balkoiak, aterpeak, biltegiak...). Ekainetik aurrera leku irekiagoetan (gehienetan zuhaitzetan) egiten dituzte habiak, eta askoz handiagoak izaten dira; iraila-urrirako 40-80 zentimetroko diametroa eduki dezakete.

LIZTOR BELTZAREN AURKAKO PROTOKOLOA

Liztor asiarraren habiaren bat antzeman orduko, haren aurkako protokoloa jartzen da abian. Udaltzaingoak lehen txostena egiten du eta, ondoren, Debagoieneko Landa Garapena elkarteak habia



EZKONTZETAN

Etxe-Aundi
Kontu - Kontu on

2015-2016 urteetan

Informazio gehiago,

Tel. 943 78 19 56

www.etxeaundi.com





Argazkiak: Danel Solabarrieta

**LIZTORRA ERLE-EHIZAN.**

Erlauntzara bueltan, kargatuta eta nekatuta datorrenean erasotu ohi dio liztorrak erleari. Lepotik heldu eta ito egiten du. Lehenengo burua zurruputzen dio, guk otarrainxkak jatean egiten dugun moduan. Gero, hegalak eta hankak moztu eta habira eramaten du trontzorik onena, erreginak eta kumeek jan dezaten.



◀ Ondoko argazkian ikusten den moduan, erleek ez dute erlauntzatik atera nahi izaten liztor asiarren beldur.



▲ Liztor asiarrek 30 milimetro inguru ditu. Kolore ia erabat beltzekoa da eta sabelaldeko segmentuen tartearak horiak ditu. Sabelaldeko laugarren zatia hori-laranja kolorekoa du. Burua eta toraxa beltzak ditu eta aurpegia laranja. Ez da nahastu behar liztor europarrarekin (*Vespa crabro*). Hau pittin bat handiagoa da; toraxa marroi-gorrixka du eta sabelaldearen azken bi herenak horiak. Honek ere jaten ditu erleak, baina ez da liztor asiarra bezain ugaria



suntsitzeko operazioa programatu eta koordinatzen du. Larrialdi egoera bat bada (ikastetxe, kiroldegi edo jende asko dabilen leku publiko batean dagoelako) suhiltzaileei deitzen zaie, eta egunean bertan edo hurrengoan kentzen dute.

Bestela, astean behin programatzen dira habiak kentzeko lanak. Bi lagun artean egiten dute; alde batetik Debagoieneko Landa Garapena Elkarteari zeregin horretarako propio kontratatzen duen langileak, eta tokian tokiko udalak jartzen duen beste pertsona batek.

Liztorren habia iristeko moduko tokian baldin badago, bertaraino igo eta aerosol bidez sartzen dute pozoia barruan. Bestela, habiak oso goian dauden kasuetan, pertika edo aga luze bat erabiltzen dute

(Hurrengo orrira)



Oñatin kendutako habietako bat

Liztor beltzaren zikloa

Negua babesean (lur azpian, hosto artean, zuhaitz enborretan...) igaro ondoren, lehen habiak egiten hasten dira erreginak udaberri hasieran, eta arraultzak jartzen ditu bertan. Lehen habi hauek txikiak izaten dira, eta babesean egiten dituzte (teillatu azpian, aterpeetan, etxaboletan...). Ekainetik aurrera, lehenengo habia utzi eta behin betiko habia egiten dute liztor erreginak eta langileek. Leku irekia-goan egiten dute (gehienetan zuhaitzetan). Iraila-urria bitartean hartzen dute tamainarik handiena. Habi haundi batek 2000 liztor eduki ditzake. Garai honetan liztorrek elikagai behar handia dute, eta orduan egiten dute kalterik handiena. Liztorren eraso gogorrenak uztaila eta urria artean izaten dira. Irailetik aurrera liztor emeak ernaltzen hasten dira, eta negua igarotzea lortzen dutenek emango diote jarraipena espezieari.

intsektizida habian sartzeko.

Langileak arropa bereziz babestuta joaten dira. Liztor beltzak normalean ez die kasurik egiten gizakiei, baina erasotuta sentitzen denean bai, eta, gainera, bere ziztada hemengo liztorrarena baino pozoitsuagoa da eta, beraz, tentuz ibili behar izaten da.

Horri gehitu behar zaio, gainera, askotan altueran eta leku bihurrietan egin beharreko lana dela, eta zenbait kasutan gabaz egiten dela, orduantxe egoten baita liztor gehien kabi barruan.

Habia kentzeko moduan baldin badago, kendu eta erre egiten da, barruan larbak egoten direlako. Zuhaitz puntetan edo iritsi ezineko lekuan daudenean bertan uzten dira, inguruan mugimendurik ez dagoela ziurtatu ondoren. Handik urtebetera usteldu eta jausi egiten da.

Liztor beltzek azarorarte jarraitzen dute lanean. Beraz, halakorik ikusiz gero, udaltzaingoari abisua ematea komeni da.

Liztor asiarra 2004an antzeman zuten aurreneko Frantzian. Antza, kiwi kargamendu batean iritsi omen zen Bordelera eta poliki poliki Europa osora zabaltzen ari da, ugalkortasun handia baitu. Piriniotatik iritsi zen Euskal Herrira eta, hain zuzen ere, Gipuzkoako ipar-ekialdean dago ugarien, baina Euskal Herri osora zabalduta dago jada, eta baita inguruko herrialdeetara ere: Burgos, Errioxa, Cantabria, Galizia, Katalunia....



FERNANDO LIZARRALDE | Erlezaina

“Alarma handiegia piztu da liztorraren inguruan; horren aldean gaitzak txarrak ditugu (gosea eta Barroa) eta horietaz ez du inork hitz egiten”

Nola bizi duzue Oñatiko erlezainok liztor asiarraren mehatxua?

Arazoa badago, bai, baina uste dut larregiko alarma piztu dela komunikabideetan oihartzun handia duelako. Horren aldean gaitz txarrak ditugu, eta horietaz ez du inork hitz egiten.

Zeri buruz ari zara?

Nik beti esaten dut Gipuzkoan dagoen gaitzik txarrena gosea dela. Ez dago bazkarik, dena piñuak hartuta dago-eta. Lehen beti egoten zen zerbait jateko, edo txaria, edo txori-keiza, edo

arantza-beltza edo elor-arantza edo arbi-lora... Gaztainondoa ere asko zegoen, erlearentzako garairik onenean gainera. Beti egoten zen zerbait loran, eta horrekin erlea indartu egiten zen. Orain aldiz, ia ez dago gaztainarik, txilarra ere gutxi... Bazka gutxi erleentzat.

Barroak (Varroasis) ere burukomin ugari ematen dizue, ezta? Bai, zorri txiki bat da. Hau ere Asiatik etorri zen. Oso txikia da eta ia ikusi ere ez da egiten. Ikusten denean, izurria dagoen seinale. Erleen larbari odola

“ Erleentzat Gipuzkoan dagoen gaitzik txarrena gosea da. Ez dago bazkarik. Dena piñua da.

**GARBIKETA
ADMINISTRAZIOA
ETA KONPONKETAK**

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkarleen administrazioa
- Konponketa orokorrak

653 70 45 47
Oñati

**PINTURAS
URBIA
MARGOAK**

Arantzazuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15



Barroari aurre egiteko, akarizida bat daukan plastikozko tira batzuk sartzen dira abarasken artean ezta kendu ondoren. Beheko argazkietan ikus daitezke barroa duten erleen adibide batzuk.



Ardo zuri eta garagardo beltzez edo fruten zukuz egindako tranpak jartzen dituzte erlauntzen ondoan. Behean, tranpan eroritako liztor bi; bata europarra (*Vespa crabro*) eta bestea asiarrak (*Vespa velutina*)



xurgatzen diote eta erlea jaiotzen da hego barik.

Ez dago erremediorik?

Bai, badago botika bat. Ezta kendu ostean, plastikozko tira bat sartu behar da abarasken artean, eta plastiko hori joaten da akarizida askatzen. Baina ondo jakin behar izaten da noiz eta nola aplikatu, eraginkorra izan dadin. Gainera, zorriak inmunizatu egiten dira, eta beraz, tarteka produktu berriak probatu behar izaten ditugu, diru asko balio dute, ez dago laguntzarik...

Liztor asiarraren 30 bat habi kendu dituzte aurten Oñatin. Badirudi ugaritzen ari dela hemen ere.

Bai. Ez dut esan nahi ez denik kezkatzekoa. Donostia aldean eta Bizkaialdeko kostaldean ere

asko omen dago, eta normala da jendea larrituta egotea, baina hemen, oraingoz, ez da arazo handia.

Liztor beltzarentzako tranpa batzuk ere jartzen dituzue, ezta? Bai. Plastikozko botilan jartzen dugu basokada bana ardo zuria eta garagardo beltza, arandano sirope edo mermelada pittin batekin nahastuta. Udazkenean berriz, sagar, melokotoi edo mahats zukua ipintzen dugu. Erlauntzen inguruan jartzen ditugu, eta busti ondoren, botilatik irteten ezinda geratzen dira. Kontua da, liztor asiarrak ez ezik, bertako liztorra, erleak eta bestelako intsektu batzuk ere sartzen direla.

Komenigarria litzateke liztor beltzaren feromonetkin tranpa espezifiko bat prestatzea, eta

horretan ari dira, baina ez dakit lortuko duten.

Erleak jaten dituela badakigu. Zer gehiago dakigu liztor beltzari buruz?

Dultzea (sagarra, mahatsa...) ere gustatzen zaio, baina haragijalea da. Ikusita daukat, oilasko bular bat aurrean jarri, eta garbantzo baten tamainako puska hartzen.

Vespa velutina oso gogorra da. Erreginak hibernatu egiten du negu osoan ohol-bitarte edo haitz-bitarteren batean, eta udaberriarekin esnatu egiten da eta arraultzak jartzen hasi. Gure erlea berriz, bi mila erlerekin geratuta ere, neguan hotz handia egiten badu, igual ez da aurrera ateratzen.

Liztor europarrak (*Vespa crabro*) ere jaten ditu erleak, ezta?

Bai, baina askoz urriagoa da, eta elkar-bizi egiten dute, oreka naturala lortuz. Liztor asiarrak aldiz, ugalkortasun handia du eta hemen ez dauka aurre egingo dion harrapakaririk.

Beraz, liztor beltzarekin elkarbizitzen ikasi beharko dugu?

Ari dira ikerketak egiten aurre egiteko, baina, gutxi edo asko, elkarbizitzen ikasi beharko dugu. Mundu globalizatu honetan, etengabe hara eta hona gabiltzan honetan gero eta normalagoa izango da halakoak gertatzea.



Liztor asiarrak oso gogorra da. Erreginak hibernatu egiten du negu osoan bera bakarrik, eta udaberrian esnatu eta arraultzak jartzen hasten da



Gazte lokalek jarduera lizentzia beharko dute aurrerantzean

► Lokal hauek bete beharreko baldintzen ordenantza onartu du udalbatzak ► Urtebeteko epea zabalduko du orain Udalak, gazteen aisialdirako lokalen erabilera erregularizatzeko

Gazte taldeen aisialdirako lokalek bete beharreko baldintzak arautzen dituen ordenantza onartu zuen udalbatzak irailaren 24ko osoko bilkuran. Bertan jasotzen dira, besteak beste, hirigintza mailan, segurtasunean, garbitasunean edo zarata mailari eta ordutegiari dagokionean lokalek bete beharreko baldintzak.

Hala, adibidez, zarata mailari dagokionez, indarrean dagoen 37/2003 legea bete beharko dute; hau da, 8:00-23:00 artean debekatuta dago 40 dezibelioak gainditzea, eta 23:00-7:00 artean 30 dezibelio.

Segurtasunari dagokionez, debekatuta egongo da sukaldea edo janaria prestatzeko gailuak jartzea. Mikrouhin-labeak eta hozkailuak baimenduko dira. Gainera, derrigorrezkoa izango da su-itxalgailuak eta argindar instalazio zertifikatua edukitzea.

Higienea edo garbitasunari dagokionez, komuna eta ur hartune bat izan beharko dute lokalek, eta baita aireztapena ere. Aforo edo edukierari dagokionez berriz, bi metro kuadroko pertsona bat onartuko da

gehienez.

URTEBETE, LOKALAK ERREGULARITZATZEKO

Ordenantza honek behin betiko onarpena jaso eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren, urtebeteko epea zabalduko du Udalak, funtzionamenduan dauden lokalak erregularizatzeko. Horretarako, lokalen jabeek jarduera baimena eskatu beharko dute udaletxean, ordenantzan zehazten diren gainerako agiriekin batera. Besteak beste, 100 mila euroko estaldura duen aseguru poliza eta erabiltzaileekin sinatutako kontratua aurkeztu beharko dute. Bienbitartean, erantzukizunpeko aitorpena aurkeztu beharko dute.

(Hurrengo orrira)

Gazteen eta bizilagunen arteko elkarbizitza bermatzera zuzendutako aholku gida ere prestatu du Udalak



- ✓ Elkarbizitza da oinarrizko irizpidea lokeletako erabiltzaileek eta bizilagunek harreman osasuntsua izan dezaten
- ✓ Jarduera lokal barruan bakarrik gauzatuko da. Gauetan, bereziki, kontu handia eduki zaratekin, lokaleko sartu-irteeretan.
- ✓ Debekatuta dago lokal barruan sukaldatzea. Mikrouhin labeak eta hozkailuak eduki ahal dira.
- ✓ Su-itxalgailua eduki beharko du lokalak eta argindar instalazio zertifikatua
- ✓ Komuna eta ur-hartunea eduki behar ditu lokalak.
- ✓ Egunez (8:00-23:00) ezingo da 40 dezibelioko zarata maila gainditu, eta gabaz (23:00-07:00) 30 dezibeliokoa.

OÑATI GARBIKETAK S.L.

- Komunitate, garaje... garbiketa integrala
- Lurren kristalizatua, dekapatua
eta argizari ematea.

Oñati 17. beheko esk. / Tel: 733 733 713
argitagarbi@hotmail.com

ARGITAGARBI

Almaraz
Inmobiliari gestioa

Tel: 679411444
www.almaraz.info

Carmelo Pérez de Almaraz

"Gure bezaroen eskari eta beharrei erantzun nahian, etxebizitza, lokal, garaje, baserri, lursail edo pabiloi bat saldu edo alokatu nahi baduzu, dei diezaguzu".

Aipatutako epe horretan erregularizatzen diren lokalei ez zaie aplikatuko lokalen artean egon behar den distantziari dagokion baldintza (bi lokalen sarrerako ateen artean gutxienez 20 metro egon beharko dira). Ezingo da baimenik lortu Foru Enparantza, Kale Barria, Atzeko Kale eta Kale Zaharra (1-29 eta 2-50 zenbakietan) fatxada duten lokaletan.

AHOLKU GIDA

Ordenantzaz gain, Aholku Gida bat ere prestatu du udalak, gazteen eta bizilagunen arteko bizikidetza ahalik eta osasuntsuena izan dadin. Garbitasuna, segurtasuna edo zarata mailarekin lotutako hainbat gomen-dio jasotzen dira bertan. Adibidez, lokalen inguruak garbi mantentzea, kanpoaldean jende-pilaketak eta zaratak ekiditea, edota komunitateko bileretan parte hartzea.

Prebentzio mailan, lokaletan ez erretzea (osasun eta segurtasun arrazoiengatik) eta alkohol kontsumoak gertatuz gero, errespetuzkoak eta arduratsuak izatea eskatzen da. Lokal guztietan banatuko du aholku gida hau Udalak.

ARAU-HAUSTEAK

Ordenantzak ezartzen dituen betebeharren kontra egindako arau-hauste motak (arinak, larriak eta oso larriak) eta bakoitzari dagokion zehapena ere jasotzen da bertan, 100 eta 3.000 euro arteko isunekin, arau-hauste motaren arabera. Udalak instalazioen ikuskaritza lanak egingo ditu ofizioz edo parte batek salaketa idatzia jarri eta gero egindako eskabidez.

BIZIKIDETZA MAHAIA SOR LITEZKEEN ARAZOAK BIDERATZEKO

Lokaleko jardueraren eta eraikineko bizilagunen artean arazoak sortzen badira, Udalak bitartekaritza protokoloa jarriko du inplikaturako alderdien eskura. Aldeen arteko elkarrietzeta lehenetsiko da, eta arazoak jarraitzen badu, Bizikidetza Mahaia deituko da. Lokaleko erabiltzaile, bizilagun, lokaleko jabe eta udaleko Gazteria eta Partaidetza teknikariek osatuko dute mahaia. Sortutako arazoa aztertzea eta konponbideak aurkitzea izango da mahaia zeregina. Horrez gain, herriko gazteak udaleko Gazteria teknikariarengana zuzendu ahalko dira uneoro aholku edo bitartekaritza eske, arazoak gehiagora joan aurretik. Adostutako irtebidera iristea ezinezkoa bada, edo adostutakoa ez bada errespetatzen, ordenantzak jasotzen duen dizi-plina prozedura aplikatuko du Udalak.



Gazte, guraso, lokalen jabe eta bizilagun ugarik parte hartu dute lokalen fenomeno soziala aztertu eta elkarbizitza araudia zehazteko partaidetza prozesuan

Prozesu hezitzailea eta aberasgarria

Honenbestez Udalak amaiera eman dio gazte lokalen fenomenoaz aztertzeko Gabonetan hasitako partehartze prozesuari. Orduz geroztik hainbat bilera egin dira gazteekin, gurasoekin, lokalen jabeekin eta bizilagunekin, eta guztiek egindako ekarpenekin osatu dira ordenantza eta aholku gida.

Gazteak lokaletan elkartzeko ohitura goraka doan fenomeno da, baita Oñatin ere (gaur egun era 24 bat lokal daude herrian), eta Udalak beharrezko ikusi du jarduera hau arautzea, elkarbizitza hobetu eta herritar guztien eskubideak eta betebeharrak errespetatzeko asmoz. Gazte lokalen jardueraren legitimotasuna ez da zalantzan jarri, baina baldintza batzuk bete beharko dituzte bizilagunekiko elkarbizitza bermatzeko.

Prozesu aberasgarria eta hezitzailea izan dela adierazi digute bertan parte hartu dutenek. Adin, ikuspuntu eta interes ezberdineko herritarren arteko hurbilketa eta elkarrietzeta eman da prozesuan zehar; partekatutako erantzukizunaren ideia landu da, eta elkarbizitza osasuntsurako irizpideak finkatu dira guztien ekarpenekin.

EAJ abstenitu egin da

Oro har ordenantzarekin ados egon arren, EAJk abstentziora jo du, bere ustez lokal hauen erabilerari buruzko ordutegia ere zehaztu beharko lukeelako ordenantzak. Jeltzaleek gaineratu zuten, alkohol eta drogra kontsumoren inguruan ere zehatzagoa izan behar duela ordenantzak, aholku eta gomendio sorta batera mugatu barik. EH Bilduk dio zarata mailaren ordutegia zehaztuta dagoela ordenantzan, eta ez duela lokaletako sarrera-irteera ordutegia mugatu beharrik ikusten oraingoz behintzat. Bestalde, gogoratu du, alkohol kontsumoari buruzko legea badagoela, ordeantzen gainetik.



'ONTZIRATU ZAITEZ!' KANPAINA

Arraindegia eta harategiko erosketak tuperrarekin egiteko deia luzatu dute

Kanpainako lehen bi hilabeteetan 2.100 erosketa egin dira Oñatin tuperra erabiliz



Bi hilabete igaro dira Udalak eta Kutxa Ekoguneak 'Ontziratu zaitez!' kanpaina abian jarri zutenetik eta positiboki baloratu dute orain arteko ibilbidea. Lehen bi hilabeteetan 2.100 inguru erosketa egin dira Oñatin tuperrak erabiliz. Abuztuan, normala den moduan, erosketa kopuruak behera egin zuen eta, beraz, ikasturte berriarekin batera kanpainaren sustatzaileek animatu egin nahi dituzte berriz ere herritarrek tuperra erabiltzera erosketak egiterakoan. Gogoratu, arraindegia eta harategietan erabili ohi den plastikozko poltsa eta paper bilgarriak aurrezteko delako kanpainaren helburua.

30€-KO EROSKETA BONOIA
zozkatuko da abendura bitartean erosketak tuperrarekin egiten dituzten herritarren artean, kanpainarekin bat egin duten harategi eta arraindegietan

Aizkorri-Aratz parkea Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzeko prozesua kontsentsuz egitea eskatu du Udalak

Eusko Jaurlaritzak 2013an Aizkorri-Aratz natur parkea Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) izendatu eta helburuak eta neurriak aurkeztu zituenetik, bertako interesatuek (lur jabeak eta maizterrak, abeltzainak, artzainak, baso-sailen jabe eta ustiatzaileak, ehiztariak, perretxiko biltzaileak, eskalatazaileak, espeleologoak...), ez dute partehartze eragingarriarik izan eta, beraz, egungo kudeaketa plana bertan behera utzi eta idatzketa berria egitea eskatu du udalbatzak aho batez, interesatuen partehartzea bermatu eta kontsentsua lortuz.

Horrekin batera, interesatuen ordezkariak KBEren organo kudeatzailean ordezkaturik egotea eskatzen da mozioan, eta, bestalde, KBE-a ezartzeak dakartzan eraginak eta balio-galerak baloratzeko eta konpentsatzeko partida ekonomiko bat bermatzea.

Errefuxiatuei laguntzeko neurriak

Siriako gatazka armatuak eragindako lau milioitik gora errefuxiatuei merezi duen erantzuna ematea eskatu dio udalbatzak aho batez Espainiako gobernari.

Ildo horretan, errefuxiatuei laguntzeko prest leudekeen herritarren sarea osatzen ari da Udala. Interesatuek partaidetza@onati.eus helbidean eman dezakete izena.

Udalak bere aldetik errefuxiatuak hartzeko prestutasuna adierazi dio Krisi Mahaiari, eta ildo horretan, EH Bildu eta EAJren udal taldeek adostu dute diru poltsa bat sortzea errefuxiatuen bost familiaren bi urteko alokairu soziala ordaintzeko adinako dotazioarekin.

Kale Zaharreko zaraten arazoa konpontzeko partehartze prozesua proposatu du EAJk

Batez ere Kale Zaharrean soinu kutsadurarekin duten arazoaren aurrean neurri zehatzak proposatu ditu EAJren udal taldeak.

Batetik, zaraten mapa egitea proposatu dute IHOBERen laguntzarekin, arazoaren larritasuna eta fokua antzematen lagunduko duelakoan.

Bestetik, partehartze prozesu bat abian jartzea eskatu dute jeltzaleek, bizilagunen eta ostalarien partaidetzarekin, denen artean elkarbizitzarako gutxiengoak adosteko, gaueko aisialdia eta bizilagunek atsedenez duden eskubidea uztartuz.

Bizikletaren aldeko ekipamenduak



Oinarrizko ajuste eta konponketak egiteko ekipamenduak jarri ditu Udalak Bidaurreta parean eta Otadui zuhaitzian. BAIBIKE enpresa oñatiarrak diseinatutakoak dira.

HARALD LINDER
ETXETAN ERA GUZTITAKO KONPONKETAK
PERFORAK, LEBURAK, LUR FURKATUAK, ARBOLAK, PINTURAK, LAKAK...
GURE HERRIETAN DUTEN GURE BIKERAK
HERRIETAN, GURE HERRIETAN, GURE HERRIETAN
HERRIETAN, GURE HERRIETAN, GURE HERRIETAN
695 78 91 04 - 943 04 47 77

ZURICH
M^a del Mar Urrutia Negueruela
Motxori Kalea 5 behea
Tel/Faxa: 943 78 30 09 • Murgikorra: 620 77 66 20

Oñatiko memoriaren ERRETRATUAK



>> Euskal gatazkaren ondorioz Oñatin hildakoei buruzko txostena egin du Jaurlaritzaren Bake eta Bizikidetzak Idazkaritzak. ETak eraildako 10 pertsona gogoratzen dira bertan. Susana Arregiren heriotzak egiaztatze- eta ikerketa-lan handiagoa behar duela dio.

Euskal gatazkarekin lotuta, 1960tik 2010era bitartean terrorismoaren eta beste edozein motatako indarkeria politikoaren ondorioz Araban, Gipuzkoan eta Bizkaian hildako pertsonen datuak biltzen dituen txostena egin du Eusko Jaurlaritzaren Bake eta Bizikidetzak Idazkaritzak, datuak herriz herri antolatu-tuta.

Hala, herri bakoitzeko txosten-ean, bertan eraildako biktimak jasotzen dira, bai eta beste lekuren batean hil arren, herri horretan jaio edo bizitakoak ere.

‘Bizitzako eskubidearen urraketen udal erretratuak’ du izenburua dokumentuak, eta hildakoen memoria gordetzeko xedearekin osatu da. Udal bakoitzeko arduradunen esku utzi den baliabide bat da, herri bakoitzean izandako biktimak gogoratu eta aitortza jarduerak sustatzen laguntzeko.

Ildo horretan, azaroaren 10ean, Oroimenaren Egunean, udalerrri guztietan biktimak



Oñati: Dos guardias civiles, muertos en atentado

Además de los dos guardias civiles, el ataque causó la muerte de dos civiles, entre ellos el hijo de un guardia civil. El ataque ocurrió el 25 de octubre de 1987, cuando dos guardias civiles fueron asesinados por ETA. La víctima de ese ataque se puso de manifiesto el 25 de octubre, cuando se celebró una manifestación en Oñate en recuerdo de los dos guardias civiles asesinados.

Guardia Zibilaren aurka 1987an egindako atentatuko irudia

gogoratzeko ekitaldiak egitea proposatu du Jaurlaritzak, indarkeriaren bidegabekeria eta biktima guztien duintasuna aitortzeko. Gero udal bakoitzaren esku geratuko da prozesu honetan jarraituko duen bidea eta emango dituen urratsak erabaki eta zehaztea.

**Bederatzi
guardia zibil
eta udaltzain
bat hil zituen
ETak Oñatin**

HAMAIKA HILDAKO

Oñatin lehenengo atentatua 1975eko urriaren 5ean gertatu zen, Arantzazuko errepidean. ETak lehergailua eztandarazi zuen Land Roverra pasatzen ari zela eta hiru guardia zibil hil ziren bertan: *Esteban Maldonado Llorente*, 20 urtekoa, San Pedro de Mérida-koa (Badajoz) eta ezkongabea; *Jesús Pascual Martín Lozano*, 25 urtekoa, Villaverde de Iscar-ekoa (Segovia) eta ezkongabea; eta *Juan José Moreno Chamorro*, 26 urtekoa, Villamesías-ekoa (Cáceres), eta hiru seme-alaben aita. Arrasateko kuartelean destinatuta zeuden hirurak. Eztandak larriki zauritu zituen beste bi guardia zibil ere.

1978ko abenduaren 1ean Oñatiko kuartelean destinatuta zegoen *Manuel León Ortega* guardia zibila hil zuen ETak Aloña Mendi tabernan tirokatuta. Constantina-koa (Sevilla) zen, 35 urte zituen eta hiru seme-alabaren aita zen. Aten-

caravanas  oñate

• GALDARAGINTZA - CALDERERIA
Oñateko zutimutza, 25 • Tel.: 943 71 63 50

www.caravanasoñate.com

• BIZIKLETAK
• ERREMOLKEAK
• TXIRRINDULARITZAREN OSAGARRIAK
Oñateko zutimutza, 25 • Tel.: 943 78 05 65
Atzeko kalea, 32 (erakusketa)

tatu berean tabernako barraren atzean ezkutatzea lortu zuen beste agente batek.

1979ko apirilaren 29an *Juan Antonio Díaz Román* guardia zibila hil zen Oñatin. TEDAX-eko teknikaria zen, eta Oñatin eraikitzen ari ziren etxebizitza bloke batean jarritako lehergailu bat indargabetzen ari zela eztanda egin zion. “Kontuz, ez pasa. Lehergailua” jartzen zuen bonba zegoen poltsan, eta ETA-ren sinadura. Melillakoa zen hildako agentea, 28 urte zituen eta hiru seme-alaba.

1980ko otsailaren 8an *Angel Astuy Rodríguez* Oñatiko udaltzaina hil zuen ETAk. Isla-koa (Kantabria) jatorriz, Oñatin bizi zen eta lanera zihoala hil zuten tiroz, Arantzazu kalean; 48 urte zituen eta bost seme-alaba.

1983ko urriaren 15ean *José Reyes Corchado Muñoz* hil zuen ETAk Zubillagan, Guardia Zibilaren hiru ibilgailu pasatzen ari zirela eztandarazitako bonba baten bidez. Alburquerque-koa (Badajoz) zen, 28 urte zituen eta bi alabaren aita zen. Aretxabaletako kuartelean destinatuta zegoen.

1986ko ekainaren 8an *Antonio Ramos Ramirez* guardia zibila hil zuen ETAk. Oñatiko kuartelean destinatuta zegoen eta Arrasateko San Andres auzoko taberna batetik irten eta emaztearekin autoan sartzera zihoala hil zuten tiroz. Espera-koa (Cadiz) zen, 32 urte zituen eta haur baten aita zen. Gainera, emaztea sei hilabeteko haurdun zegoen.

1987ko uztailaren 14an bi guardia zibil hil zituen ETAk Olapoto inguruan GAR taldeen konboi bat pasatzen ari zela bonba bat leherrarazita. *Antonio Angel López Martínez-Comenero* zen hildakoetako bat; Cabreiró-koa (Ourense), 32 urtekoa eta alaba baten aita. Eta bestea *Pedro Galnares Barrera*, Potes-ekoa (Kantabria), 26 urtekoa. Emaztea haurdun zegoen. Biak Oñatiko kuartelean destinatuta zeuden. Atentatu berean 12 agente zauritu ziren.



Susana Arregiren hilotza Oñatira ekarri zuten uneko irudia.

SUSANA ARREGI ETA ANGEL FERNANDEZ

Txostenak jasotzen duen azken heriotza *Susana Arregi Maizte-girena* da. Egiaztatze eta ikerketa-lan handiagoa eskatzen duela esaten du.

1990eko ekainaren 25ean agertu zen hilda Susana Irunberrin, distantzia laburrean egindako tiroa buruan zuela. Gorpua aurkitu baino hogeita ordu lehenago tiroketa bat gertatu zen Guardia Zibilarekin. Bertsio ofizialaren arabera bere buruaz beste egin zuen Susanak. Familiak esan zuen kontraesanak zeudela bertsio horretan, eta Ardanza lehendakariak ere esan zuen bertsio ofiziala zalantzan jartzeko arrazoiak zeudela. Gertakari berean *Jose Luis Hervás Mañas* guardia zibila eta *Jon*

Azaroaren
10ean udalerrri
guztietan
biktimak
gogoratzeko
ekitaldiak
egitea
proposatu du
Jaurlaritzak

Lizarralde Urreta ETAkidea hil ziren. Azken honen autopsiaren arabera, asfixiaz hil zen. Hirugarren komandokidea, *German Rubenach*, zaurituta geratu zen, buruan tiroa zuela, eta inkoherentziak esan zituen deklarazioetan.

*Angel Fernandez*en heriotza ez dago jasota Jaurlaritzaren txostenean, ez delako nazioarteko zuzenbidean bizitzeko eskubidearen urraketa kasutzat hartzen. Gogoratu, Angel Fernandez oñatiarra 1993ko otsailaren 3an hil zela, eskutan eztanda egin zion lehergailu batek eragindako zaurien ondorioz. Angel *Iraultza* talde armatuko kidea zen.

KRITIKAK TXOSTENARI

Jaurlaritzaren Bake eta Bizikidetza Idazkaritzak egindako dokumentuak zenbait kritika jaso ditu. Alde batetik, dispersioaren ondorioz errepideetan hildako presoan 16 senideak Memoriaren Mapan jasotzea eskatu du Etxeratek.

Bestalde, PP eta UPyD alderdiek eta Covite biktimen elkarrekin gogor salatu dute dokumentua, herriz herri egindako erretratuetan polizia tirokatuta hildako 21 ETAkide azaltzen direlako.

OÑATIKO UDAL GOBERNU TALDEA

“Jaurlaritzak osatu duen mapak hutsune argiak ditu”

Oñatiko udal gobernu taldearen ustez Jaurlaritzako Bake eta Bizikidetza Idazkaritzak egin duen txostenak hutsune argiak ditu. “Gatazkaren ondorioak konpondu eta bizikidetzaren alde urratsak ematea denon ardura da. Bide horretan egiten den oro positiboa izanik ere, Jaurlaritzak osatu duen mapak hutsune argiak ditu. Beraiek markatu dituzte irizpideak eta alde horretatik emaitza oso baldintzatua dago. Oñatiri dagokionean Susana Arregi kapitulu bereizi batean agertzen da. Angel Fernandez ez da agertzen. Dipertsio politikaren eraginez hildako herritarrak ere ez dira ageri, horien artean Nati Junco oñatiarra. Hutsune handiegia dira erronka honek eskatzen duen lanketarako”.

Ildo horretan, gobernu taldeak ez du uste oinarri sendorik dagoenik oraindik azaroaren 10ean biktimak gogoratzeko ekitaldirik antolatzeke, Jaurlaritzak proposatu duen moduan. “Herri honetan gauza asko daude oraindik konpontzeko, eta ez daukat batere garbi gisa horretako ekimenak antolatzeke oinarria sendorik daukagun. Sukalde lan asko daukagu egiteko eta gure aldetik konpromisoa agertzen dugu horretarako”.

ELTZIA

HERRI SORMENAREN ETXEA



► **Proiektu arkitektonikoa zehaztu ondoren, kudeaketa eredia adostea da orain erronka** ► **Hiru bilera egingo dira horretarako urtea amaitu bitartean**

Eltziak ikasturte berriari ekin dio helburu garbi batekin: kudeaketa eredia adostu eta finkatzea urte amaiera bitartean. Horretarako hiru lan saio egingo dira, urriaren 24an, azaroaren 28an eta abenduaren 12an.

ELTZIA PROIEKTUA

ETEO zaharreko eraikinean kokatuta, sormena eta herrigintza landu nahi duten herriko talde eta eragileen etxea da Eltzia. Herri kulturegintza bizitzeko modu berria; autogestioa, elkarlana eta gizarte onura ardatz dituen. Taldeen arteko lankidetzak eta sinergiak bilatzen dituena.

2013ko udaberrian hasi zen mamitzen Eltzia proiektua, Udalak sustatuta eta 'Bagara Herrigintzan' kooperatibak koordinatuta. Herriko talde, kolektibo eta sortzaileen egoeraren diagnostikoa egin ondoren, Eltzia proiektuaren oinarriak finkatu ziren, eta oinarri horiek ardatz hartuta, eraikinaren proiektu arkitektonikoa landu da.

Gaur egun, dagoeneko, herriko 17 talde daude kokatuta Eltzian probisionalki, eta beste 17k agertu dute bertara joateko asmoa. Horiez gain, herriko 35 bat musika talde ere Eltzian izango dituzte entsaio lokalak laister.

KUDEAKETA EREDUA

Eltzian dauden taldeak oso ezberdinak dira. Jarduteko eta antolatzeko era oso desberdinak dituzte eta, beraz, adostu egin beharko dute zein den antolaketa modu egokiena Eltzia bezalako proiektu komunitario bat aurrera ateratzeko.

Bestalde, kontuan hartuta eraikina Udalarena dela, erabaki egin beharko da zein harreman mota izango duen Eltziak Udalarekin.

Udalak eraikinarekin zerikusia duten gastuak eta eguneroko jarduneko gastu arruntak (argia, ura, berogailua) bere gain hartzeko konpromisoa hartu du, Eltzia proiektua sendotu bitartean behintzat. Eltzia bizirik mantentzeko bidelagun izate-

KUDEAKETA EREDUA ADOSTEKO LAN SAIOAK

URRIAK 24, AZAROAK 28 eta ABENDUAK 12
ELTZIAN, 10:00-13:00
(Lan saioak larunbat goizetan egingo dira herritarren partaidetza errazteko)

ELTZEKIDEAK

- Gurutze Gorria
- Lagun Leku
- Ortuzabala kontsumo taldea
- Bertso Eskola
- Zazpi Udaberri
- Lizargarate trikitilari elkarte
- Trikitixaranga
- Ilunpetan
- Naturzaliak
- Sare
- Irazan antzerki taldea
- Andraitx
- Txantxiki
- Oinaztu aisialdi elkarte
- Elkarzabal
- Acesma
- Taila taldea

Beste 17 talde ere Eltzian kokatzeko interesa agertu dute. Eta beste 35 musika talde ere batuko zaizkie.

ko borondatea adierazi du Udalak.

PROIEKTU ARKITEKTONIKOA

ETEOko eraikin zaharra Eltzia proiektura egokitzeko proiektu arkitektonikoa ere prest dago jada (ikus ondoko orrian). Bertan

jardungo duten talde eta eragileen beharretara egokituz, eta Eltziaren oinarri eta printzipioak (elkarlana, kolektibotasuna...) aintzat hartuz idatzi du proiektua Izaskun Legaristi arkitektoak Udalaren enkarguz.

Aktuaziorik inportanteena behe solairuan egingo da, musika taldeentzako lokalak egokitzeko baitira bertan. Bestalde, taberna behe solairutik lehen solairura eramatea proposatzen da, eta klaustroaren ondoan topagune zabal eta argitsu bat egokitzea, Eltziaren bihotza eta eltzekideen topalekua izango dena.

Gainerakoan, obra handirik egin gabe, ETEOn lehendik zeuden gelak erabiliko dira, jardura bakoitzak eskatzen duen egokitzapenak eginda (zoru biguna, armairuak, ispiluak...).


Orain Udalak erabaki beharko du Eltziako proiektu arkitektonikoa garatzeko egin beharreko inbertsioen erritmoa. Hau da, dena ekitaldi batean egingo den ala faseka.

MUSIKA ELTZIA

Oraingoz martxan dagoena Musika Eltzia da. Errekaldeko sotoko lokalen egoera txarra ikusita, musika taldeentzako lokalak egokitzeari lehentasuna eman baitio Udalak.

Danera, intsonorizaturako 15 entsegu lokal (horietako bi handiak, Trikitixaranga eta Batukada bezalako taldeentzat) eta grabazio estudio bat egokitzea aurreikusten da. Aurrekontua handia denez (600 mila euro inguru), lanak hiru fasetan egitea erabaki du Udalak. Lehenengo fasean 11 entsegu lokal prestatuko dira. Lanak abuztuan hasi ziren eta urte amaierarako prest egongo dira.

Behe solairua



Behe solairuan **musika taldeentzako lokalak** eta **biltegiak** egongo dira, zamaketa lanak errazteko. Gaur egun behe solairu honetan dagoen taberna lehen solairura eramatea aurreikusten da.

Lehen solairua



Lehen solairuan **taberna** egongo da. Sarrera nagusitik ez ezik, aldamenetik ere izango du sarrera egokitu bat. Ondoan, auzoko **nagusien egonlekua** egongo da. Klaustroaren parean 'eltzekide' guztientzako **topalekua** egongo da, eta horrez gain Gorputz eltzeko taldeen **lokalak**.

Bigarren solairua



BILERA GELAK. Bertso Eskola, Ilunpetan eta beste talde eta herri mugimenduentzako gelak

Hirugarren solairua



Bigarren solairuan Sormen eltzeko taldeentzako (taila, zeramika, jostintza...) tailerrak, eta herri mugimenduko taldeentzako (Acesma, Sare, Zazpi Udaberri, Naturazaliak...) bilera-gelak egongo dira. Bertso Eskolak, Ilunpetan argazki taldeak eta Gurutze Gorriak ere bertan izango dute txokoa. Hirugarren solairutik bakarrik aretoa erabiliko da oraingoz.

UDALEKO BATZORDEAK



Partaidetza

Miren Elgarresta (EAJ), Irati Etxeberria (EH Bildu), Onintza Andres (teknikaria) eta Nerea Zubia (EH Bildu) batzordeko burua

Agintera iritsi zenetik, EH Bilduk ahalegin berezia egin du herritarren partaidetza sustatzeko udalaren kudeaketan. Ildo horretan hainbat foro eta partehartze prozesu (Aurrekontu partehartzaileak, Auzo-alkateen foroa, Gazte plana, Sozioekonomia foroa...) jarri zituen abian aurreko agintaldian. Orain urrats bat gehiago eman nahi izan du eta 'Partaidetza'ri eskainitako batzorde propioa eratu du. Teknikari bat ere kontratatu du arloa dinamizatzeko. Nerea Zubia batzordeko buruak azaldu dizkigu datozen lau urteetara begira dituzten egitasmoak.

iraunkorrak izateko jaioak: Sozioekonomia Foroa, Hezikuntza Mahaia, Auzotasuna, etab.

Edo urtero egin arren, urteko sasoi konkretu batetara mugatzen diren prozesu txikiak: partaidetzazko aurrekontuak, kasuan kasu.

Eta badago, oraindik eta urrats batzuk haratago doan partaidetza maila bat suposatzen duen Eltzia bezalako egitasmoa. Gauzak egiteko modu berritzailea da, Udala eta taldeen artean konfidantza oinarritutako harremana landuz, eta azken helburua da herri mugimendu eta elkarteek komunitate bezala aritzea, elkarri eskua emanda ideiak eta proiektuak konpartitu eta modu kolektiboagoan gauzatzeko, bizipenetatik ikastea.

Hauetako asko legegintzaldi honetan jarraipena izaten ari dira eta asmoa da partehartzaileen ahalduz maila handitzen joatea.

Datorren legegintzaldirako proiektu estrategiko berri gisa, Herri Curriculumarena azpimarratuko nuke. Labur esanda, Oñatiko Kultur Ondarea belaunaldi berriei transmititzeko egitasmoa eta aldi berean herritartasuna lantzen du-

Partaidetzak batzorde propioa izango du agintaldi honetan. Zergatik?

2011-2015 legegintzaldian hasita Udal Gobernuak landu zuen ardatz nagusietako bat parte hartzearena izan zen eta bide horretan jarraitzea funtsezkoa ikusten dugu. Erakunde eta herritarren arteko distantzia murrizteko pausuak egiten ari gara eta bikoitza da lana: herritarren artean partaidetza ohitura zabaltzea batetik eta erakundeak horretara egokitzea bestetik.

Pixkanaka eman nahi ditugu urratsak, baina helmuga litzake: herritarrentzat gobernatu beharrean, herritarrak gobernugintzan barneratzea.

Lau urteko dinamika erakutsi digu bidea egiten hasi garen arren kultura aldaketa oso bat suposatzen duela honek, bere konplexutasun guztia erekin: hiritargoaren/herritartasuna-



NEREA ZUBIA

Partaidetza
batzordeko burua

Helmuga litzateke herritarrentzat gobernatu beharrean, herritarrak gobernugintzan barneratzea



ren zentzua, erantzukizun soziala barneratzea, elkarriketa, elkarlana eta beste hainbat kontzeptu.

Herria egiteko orduan denok daukagu zer esana eta ekarpenak egiteko gaitasuna, eta horretarako ez da jakintza berezirik behar. Gure herri eredu guri, herritarro dago-kigu erabakitzea eta garatzea eta gaiaren garrantzia ikusita Batzorde propio bat izatea, zentralitatea, behar zuela iruditzen zitzaigun.

Aurreko agintaldian hainbat ekimen eta foro jarri zenituzten abian herritarren partehartzea sustatzeko. Zein dira datozen lau urteetarako egitasmo nagusiak?

Iazko agintaldian izaera oso desberdineko prozesuak egin genituen, batzuk momentu puntual batetara mugatzen zirenak, helburu oso jakinarekin, adibidez: basogintza, euskera edo gaztelekuko funtzionamendua definitzearena bezalakoak.

Beste batzuk, ordea, foro

NEREA ZUBIA | Partaidetza batzordeburua



Herri Curriculuma izango da agintaldi honetako proiektu nagusia. Oñatiko kultur ondarea belaunaldi berriei transmititzeko egitasmoa da, eta aldi berean herritartasuna lantzen duena

na. Hau da, belaunaldi berriek herriari buruz zer ezagutu beharko luketen zehaztu eta ezagutza hori nola transmititu definituko duen prozesua. Prozesu hau hezkuntza eragileez gain kultur eta gizarte eragile eta norbanako guztien parte hartzearekin, egin nahi-ko genuke.

Herritarren partehartzea sustatzeak makina bat bilera egitea eskatzen du, eta horrek, pentsatzen dut ahalegin edo esfortzu handia eskatuko dizuela, ala?

Herritarrei suposatzen dien adinako ahalegina suposatzen digu. Alegia, ordutegi finko barik lan egitea eta bulegotik kanpora, herritarrengandik gertu egotea. Guretzat hori inbertsio bat da. Hona heldu ginenetik argi genuen hala behar zuela izan eta gure lan egiteko modua ez dugu bestela ulertzen, kontraesankor-
 rra litzake.

rra litzake.

Sinisten dugu jendarte eredu aldatzeko herritarrei aukerak eman behar zaizkie-
 la horretarako, eta hori eurekin egitea beste modurik ez dago, parez-pare, elkarrekin.

Egia da, orain, Batzorde propioa eta teknikaria izateak, indarrak hobeto neurtzen eta ikuspegi integralago bat edukitzen lagunduko digula. Ta ondorioz, “karga” arintzen.

Iruditzen zait, hala ere, zenbait kasutan herritarren erantzuna ez dela izaten Udalak egindako ahaleginaren tamainakoa. Alegia, partaidetza nahi baino urriagoa izaten dela. Zein da arazoa? Kultura falta, ohitura falta, interes falta...

Kuantitatiboki, egia da hasierako prozesuetan jende kopuru handiagoak parte hartzen zuela baina hori normala ere bada, hasieran jendea lehe-

nengoz probatzera etortzen da, esperimintatzera baina guri ahalegina supostzen digun moduan, herritarrak ere bere bizimoduarekin uztartu behar du partaidetza. Eta ezin dugu ahaztu aldaketa sakinak behar badu izan, ez dela berehala gertatzen. Guztiok ari gara esperientzia berriak bizitzten eta egia da, herritarrak aginte guneetan parte hartzeko ohitura sortu nahi dugula, baina paraleloan, erakundeetan ere egokitzapenak egin behar ditugu hori posible izan dadin.

Egiaztatu izan duguna da, premiak erakartzen duela jendea, baina oraindik zailagoa dela herritarrak herrigintzako gai orokorretaz eztabaidatzeko elkartzea.

Hala ere, zenbakiez haratago, iruditzen zaigu gakoa jende berria inplikatzeko dantzala, iritzi eta ikuskera ezberdinendunen interesa erakarriz, eta bereziki, arreta jartzea ahulenak diren kolektibo edo/eta pertsonen benetako partaidetza bermatzeko indarrak jartzean (emakumeak, haur eta gazteak, etorkinak,...). Herritarrak subjektu aktibo bilakatu nahi ditugula diogunean herritar orotaz ari gara, aukera berdintasun printzipioari heldurik, noski.



Partaidetza teknikaria

Onintza Andres Aranzeta da Udaleko Partaidetza teknikaria ekainaz geroztik. Udalak abian jartzen dituen parte hartzeko prozesuak aurrera eramateko beharrezko kudeaketa lanaz gain, hauek izango dira bere zereginak: herriko elkar-teen harremanak sendotu eta sareak sortzea; herritarren parte-hartzea eta udal kudeaketako gardentasuna sustatzen duten prozedurak ezartzea (aurrekontuak...); udal departamentuei aholkularitza eskaintzea herritarren partaidetza kontuan har dezaten; herritarren partaidetza arloan sentsibilizazio ekimenak, ikastaroak eta hitzaldiak antolatzea...

Bere lantokia udaletxean dago eta edozein herritar nahiz elkarteren kontsulta eta ekarpenetara zabalik dago.



MIREN ELGARRESTA | EAJko ordezkaria Partaidetza batzordean

Parte-hartze prozesu guztietarako balioko duen sistema edo markoa definitu behar dugula uste dugu

Beharrezkoa ikusten al duzue Partaidetza batzordea?

Bai, EAJK urteak daramatza parte-hartzearen inguruko gogoeta egiten. Are gehiago, EAJ agintean zegoela, Gipuzkoan parte-hartzearen inguruan egin ziren lehen proba pilotoetan parte hartu zuen Oñatik. Adibidez, bidegorri sarearen beharra eta berau herrian nola gauzatu aztertze-

ko prozesua herritarrekin batera garatu zen. Eta testuinguru horretan onartu zen 2010ean parte-hartzeari buruzko Foru Araua.

Demokrazia aurreratuenetan oso garbi daukate gizartearen zati handi batengan eragina duten politiketan herritarren iritzia kontuan hartu behar dela. Eta EAJK ere oso barneratuta dauka hori.

Zer jorratu beharko litzateke Partaidetza batzordean?

Oraingoz gobernu taldetik proposatu zaigun gai nagusia Eltzia egitasmoa da, baina gure ustez aurreneko lana izan beharko litzateke sistema edo markoa definitzea; hau da, joku-arauak finkatu behar ditugu, herritarrek garbi jakin dezaten parte-hartze prozesu bat antolatzen denean zertara

doazen eta zertarako balioko duten beraien ekarpenek. Prozesu guztietarako balioko duen aterki bat behar dugu eta horretarako Foru Araua da erreferentzia egokia.

Proposamen konkreturik egin behar al du EAJK?

Dagoeneko mahai gainean jarri dugun proposamen bat da partaidetza prozesu bat abian jartzea Kale Zahareko bizilagunekin, gaueko jardunarekin eta zaratarekin duten arazoa elkarrekin aztertu eta irtenbide posibleak adosteko.

ENPRESA EKIMENAK | Coinbroker

COINBROKER

aseguru artekaritza

> Udaleko Enplegu zerbitzuaren laguntzarekin sortutako enpresa ekimenen berri ematen dugu tarteka orriotan. Oraingoan, Mikel eta Unai Saiz anaien zabaldu duten **'Coinbroker Gipuzkoa S.L.' Aseguru-Artekaritza** aurkezten dizuegu. Sektorean 25 urteko esperientzia duen Coinbroker enpresak Euskal Herrian zabalitzen duen lehen bulegoa da. Behar duzun aseguru kontratatzen laguntzen dizu, merkatuan dauden eskaintzarik onenen artean.



Aseguru-artekaritza bat zabaltea erabaki duzue. Zer dela eta?

Beste herrialde batzuetan ondo funtzionatzeko duen negozio-eredua delako, eta Oñatin ez zegoelako honelako zerbitzu bat.

'Coinbroker S.L.' 25 urteko ibilbidea eta esperientzia duen aseguru artekaritza bat da. Merkatuko aseguru konpainia onenekin (*Axa, Reale, Liberty, Allianz, Fiatc, Plus Ultra, Generali, Mapfre, Zurich...*) egiten du lan, era guztietako aseguruak kontratatuz.

Orain Estatu mailan zabalitzen ari da, eta geurea izango da Euskal Herrian zabalduko duen aurreneko sukurtsala.

Zer da aseguru-artekaritza bat. Ze zerbitzu eskaintzen duzue?

Edozein motatako aseguruak (etxebizitza, osasuna, bizitza, kotxea, pentsio planak, bidai aseguruak, aurrezki planak...) kontratatzeke zerbitzu bat da. Gure berezitasuna da, gu ez gaudela aseguru konpainia bati lotuta; guk merkatuan dauden konpainia gehienekin (70etik gora) egiten dugu lan, eta merkatuan dauden aukera guztiak aztertzen ditugu,



Arantzazu kalea 9an dago Coinbroker aseguru artekaritza



bezzeroari aseguru onena eskaintzeko, bai estaldura edo kobertura aldetik, eta baita prezio aldetik (%40rainoko beharpenekin).

Lehenengo, aseguratu behar diren arriskuen balorazioa egiten dugu, eta ondoren plangintza pertsonalizatua aurkezten diogu bezzeroari bere arriskuen eta beharren neurria, kostuen optimizazioa lehenetsiz.

Behar dituzun aseguruak kontratatzeke modu berria da,

merkatuan dauden eskaintza onenen artean aukeratuz.

Aseguroa kontratatu osteko zerbitzua ere eskaintzen dugu: ezbeharren tramitazioa, erreklamazioen zerbitzu propioa, estalduren azterketa eta hobekuntza... Hau da, edozein arazo edo tramiteren aurrean bezzeroari laguntzeko gaude.

Partikularrei, enpresei... Nori zuzendutako zerbitzua da? Aseguru bat kontratatu nahi duten guztiei: partikularrak,

“ Zure aseguru polizak aztertu eta konparatu nahi badituzu, zatoz gure bulegora, konpromiso barik

Unai eta Mikel Saiz
Coinbroker

enpresak, komertzioak, elkar-teak, instituzioak...

Azpimarratzekoa da, gainera, Coinbroker-ek enpresei zuzendutako departamentu berezi bat daukala, sektore horretan espezializatuta, eta oso eskaintza onak dituen, klausula bereziekin, estaldura onarekin, eta neurriko prezioekin.

Laguntzarik izan al duzue enpresa sortzeko?

Udal Enplegu zerbitzuaren laguntza tekniko eta ekonomikoa izan dugu enpresaren bideragarritasun azterketa egiteko. Gainera, merkatu azterketa egiteko ere jende askoren laguntza izan genuen, eta eskerrak eman nahi dizkiegu guztiei.

Autoenplegurako informazio boletina

Udaleko Enplegu saila ekintzaileei zuzendutako informazio boletina plazaratzen hasi da internet bidez. Enpresa ekimen bat abian jarri duten ekintzaileei, sortze prozesuan daudenei, edo enpresa ideiarene bat duten herritarrei dago zuzenduta bereziki boletina.

Herriko ekintzaileak informatuta mantentzea da tresna digital berri honen helburua. Hala, erakunde ezberdinetan (Eusko Jaurlaritza, Spri, Foru Aldundia...) dauden laguntzak, ikastaroak, legedia eta, oro har, ekintzaileentzat interesgarria eta lagungarria izan daitekeen beste hainbat gairen berri ematen da boletinean.

Hamabost eguneko maiztasuna izango du, gutxi gora behera. Oraingoz, Udalaren laguntzarekin enpresaren bat abian jarri duten herritarrei (90 azken bost urteotan) bidaltzen die boletina Udalak, elkarren arteko komunikazio kanal berri bat sortuz. Baina enpresaren bat sortzeko asmotan dabilen edozein herritarrek egin dezake harpidetza, dohainik, enplegu@onati.eus helbidean eskatuta.



enplegu@onati.eus helbidean
egin daiteke harpidetza doan

Titulatu berrientzako beka programa zabalik azaroaren 30era arte

Azken bi urteetan titulua eskuratu duten herriko gazteei zuzenduta Udaleko Enplegu sailak sortu duen **Titulatu Berrien Beka Programan** izena emateko aukera zabaik dago azaroaren 30era arte.

Beka hauen helburua da gazte titulatu berriei aukera ematea herriko enpresa txiki edo ertain bateko proiektu batean lan egiteko 3 eta 6 hilabete arteko iraupena izango duen beka baten bidez. Trukean gazteek 600€-ko soldata jasoko dute, egunean 6 orduko lan jardunaren truke. Saiolaneke tutore bana jarriko dio proiektu bakoitzari, lana zuzendu eta jarraipena egiteko.

PROIEKTUEN POLTSA

Horretarako bi lan poltsa zabaldu ditu Udalak. Batetik, proiekturen bat lantzeko interesa duten herriko enpresena (100 langiletik beherakoak izan behar dira). Une honetan bi proiektu daude lan poltsan: 1. *Negozio lerro (zerbitzu)*

> **Bekak 3-6 hilabete arteko iraupena izango du. Bekadunak 600€ko soldata jasoko du 6 orduko jardunaren truke.**

> **Une honetan bi proiektu daude poltsan, baina horiek egiteko profil egokia duten titulatuak falta dira**

berri baten bideragarritasuna aztertzea (merkatu azterketa; beharrezko baliabideak, inbertsioak, pertsonala, errentagarritasuna...); 2. *Marketing plana diseinatzea eta ezartzea* (bezero berriak bilatu eta fidelizatzeko estrategiak lantzea; plan komertziala definitu eta ezartzea; promozio eta komunikazio plana martxan jartzea; diru-laguntzak...).

TITULATU BERRIEN POLTSA

Beste alde batetik titulatu berrien poltsa osatzen ari da Udalak. Gradua, masterra, diplomatura, lizentziatura, goi mailako LH edo 3. mailako profesional ziurtagiria eduki behar da (azken bi urteetan lortutakoa) poltsan sartu ahal izateko. Karrera amaierako proiektua egiten ari direnak ere onartuko dira.

Une honetan zazpi titulatu berri daude poltsan, baina ez dago beste poltsan dauden proiektuak burutzeko profil egokia duen titulaturik.

ANE MERTZERIA

- Josteko zuzuk
- Lantzeria
- Umeen jantziak

Kale Barria, 54 ONATI

Cartonajes Arregui, S.A.

- Kartoi ondulatuen fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. ONATI



Oñatiko musikari eta olerkari batzuek ere saretu dira eta urriaren 24rako **ZAPATU ROCK** ekimena (Poesia, Rock&Rolla eta aldarrikapena) antolatu dute Gaztelekuan.

- 19:00 **PObrESIA** eta jarraian **TXULETONS**
- 23:00 **MALENKONIA** eta **PAPALAGI**

Ekitaldi osoan zehar dispartzioaren aurkako *selfie* emanaldia eta SAREren aldarrikapenak egongo dira.



Dispartzioaren berri lau haizetara

Preso eta iheslarien giza eskubideak errespetatu daitezen eskatu nahi dugu lehenbizi eta Alberto Plazaolaren kasua aipatu nahi genuke bereziki. Lehendik ere, eta urte luzez gainera, dispartzioaren eragina bizi izan duen presoak da Alberto. Giza eskubideen urraketa bat da dispartzioa, gaixo larriak kartzelan mantentzearena bezala. Honetaz gain, Frantzian betetako kartzelaldia ez diote kontutan hartu nahi. Behingoagatik Albertoren giza eskubideak errespetatuak izan daitezen eskatzen dugu, kalean aske behar du. Pertsona guztien GIZA ESKUBIDEAK errespetatuak izan behar dira behingoz herri honetako KONPONBIDEARI heltzeko, soilik honela etorriko baita BAKEA.

Horretarako "dispartzioaren liburuxka" ahal bezain beste zabaltzen ari gara. Dispartzioaren berri eman nahi diogu munduari, halako batean pareta botako dugulako, gobernuen blokeoa gaingituko dugu gizartearen gehiengoa aktibatzen badugu. Guztiok gara beharrezkoak eta liburuxka aukerako tresna da bizilagunarengana, lankidearengana, atzerriko lagunarengana... dispartzioaren berri emateko. Ez dadila apal batean hautsez bete. Eman diezaiogun bizia eta ibil dadila eskuz esku, sare erraldoi bat ehunduz.



Leuzarrako zabortegia garbitzen

'Zero Zabor' astearren barruan Leuzarrako (Araotz) zabortegi zaharra garbitzen jardun zuen herritar talde batek. Iaz bezala, aurten ere 4 tona zabor atera dituzte, garai batean erabili izan zen kontrolik gabeko zabortegi honetatik. Zero Zabor taldeak eskerrak eman nahi dizkio garbiketa lanetan jardun zuen hongo lagun taldeari, eta dei egiten die herritarrei arduraz jokatzeke eta ez uzteko hondakinak kontrolik gabeko tokietan.

IBAI LAGUN

Hirugarren urtez jarraian IBAI LAGUN ekimena antolatu dute Natur Eskolak eta Udaleko Ingurumen sailak elkarlanean, errekek garbi mantentzearen garrantziaz herritarrek sentsibilizatzeko helburuarekin. Bi ekitza egongo dira:

-IRTEERA: Urrexolako uretzak eta Urkuluko arroa

Urriak 17, larunbata, herriko plazan, 8,30etan. Egun erdiko mendi ibilaldi erraza. Amaieran Urkuluko kontsumorako ur araztegia bisitatzeko aukera egongo da.

-ERREKA GARBIKETA HERRIKOIA:

Urriak 18, igandea, herriko plazan, 9,00etan. Oñatiko erreken egoera asko txukundu da azkenaldian, zabor kopuru handiak jaso baitira aurreko bi urteetako garbiketa ekitaldietan. Aurten ahalegin berezia egingo da Torreazotik Elorregira bitartean, bereziki Santxolopetegi eta Zubillaga auzoetan. Uretan ibiltzeko oinetako egokiak eta eskularruak eramatea gomendatzen da. Asegurua egingo da. Lanaren ostean mokadutxo bat egiteko aukera egongo da.





NEGUKO ORDUTEGIAK

HORARIOS DE INVIERNO



Pesako web guneko ordutegiak oinarri gisa hartuta. Geralekutik pasatzeko ordutegiak gutxi gora beherakoak dira eta aldaketak jasan ditzakete. Aldaketak jasan ditzaketen ordutegiak, astelehenetik sapatura jaiegunetan, hauen bezpera eta hurrengo egunetan.

Horarios basados en la página web de Pesa. Los horarios de paso son orientativos, pudiendo sufrir variaciones. Horarios sujetos a posibles modificaciones en días festivos de lunes a sábado, sus vísperas y posteriores.

INFORMAZIO GEHIAGO NAHI IZANEZ GERO / SI NECESITA MAS INFORMACION

DOHAKO TELEFONOA EGUNERO / TELEFONO GRATUITO DIARIO

900 12 14 00
(7:30 - 21:30)

SANPRUD-BILBO	
Lanegunak/Laborables	
DG01	6:40 10:40 16:10
DG02	8:10 13:10 18:40
DG03	6:20 9:20 14:35
Larunbatak/Sabados	
DG01	9:05 13:10 19:10
DG02	6:40 11:05 16:10 21:10
Igandak/Domingos	
DG01	9:10 13:10 19:10
DG02	11:05 16:10 21:10
DG03	10:20 15:25
DG04	14:40 19:20

SANPRUD-DONOSTIA	
Lanegunak/Laborables	
DG01	7:45 12:50 17:45
DG02	8:45 13:40 18:45
DG03	9:50 14:45 19:50
DG04	10:50 15:45 20:45
DG05	11:45 16:50
Ostiral eta jar bezperak	
Viernes y viéperas festivos	
DG01	15:05 22:35
Larunbatak/Sabados	
DG01	9:35 14:05 18:35
DG02	6:35 11:05 15:35 20:05
DG03	8:05 12:35 17:05
Igandak/Domingos	
DG01	8:40 14:40 19:40
DG02	10:35 16:40 20:40
DG03	12:40 18:40

SANPRUD-LOIU	
Egunero/Diario	
DG501	11:05 17:20
DG502	8:05 14:05 21:20

SANPRUDEN-VITORIA GASTEIZ	
Lanegunak/Laborables	
DG26	9:15 12:40 16:15 19:40 22:40
DG27	10:15 13:15 16:40 20:15 23:15
DG28	10:40 13:40 17:15 20:40 23:40
DG29	11:15 14:15 17:40 21:15
DG30	11:40 15:15 18:15 21:40
DG31	12:15 15:40 19:15 22:15
Ostiralak	
DG05	Larunbatak DG05
Viernes	
DG05	0:40 Sabados 23:55
Asteburua eta jalegunak	
Fines de semana y festivos	
DG05	8:55 11:55 14:55 17:55 20:55
DG06	9:55 12:55 15:55 18:55 21:55
DG07	10:55 13:55 16:55 19:55 22:55

SANPRUDENTZIO-EIBAR	
Egunero/Ostia	
DG501	11:05 14:05 17:20 21:20
Lanegunak/Laborables	
DG26	8:10 11:05 14:05 17:10 20:30
DG27	8:25 11:10 14:10 17:10 21:10
DG28	8:30 11:20 14:20 17:20 21:20
DG29	9:10 12:05 15:10 18:05 21:05
DG30	9:30 12:20 15:30 18:20 21:20
DG31	10:05 12:50 15:50 18:40 21:40
DG32	10:30 13:20 16:10 19:05 22:05
DG33	10:50 13:40 16:30 19:20 22:20
Ostiralak	
DG05	12:20 16:20 20:20
Viernes	
DG05	23:35 Lar/Sab 23:45
Asteburua eta jalegunak	
Fines de semana y festivos	
DG05	6:35 11:10 14:35 17:45 21:10
DG06	7:45 11:45 15:10 18:35 21:45
DG07	8:35 12:35 15:45 19:10 22:35
DG08	9:45 13:10 16:35 19:45 23:10
DG09	10:35 13:45 17:10 20:35
DG10	9:20 13:20 17:20 21:20
DG11	11:20 15:20 19:20

SANPRUDENTZIO-ARRASATE	
E/D DG501	
Lanegunak/Laborables	
DG04	7:50 9:50 12:10 14:50 16:50 18:50 21:00 23:40
DG05	8:20 10:20 12:50 15:20 17:20 19:20 21:40
DG06	8:50 10:50 13:30 15:50 17:50 19:50 22:20
DG07	9:20 11:30 14:10 16:20 18:20 20:20 23:10
DG08	7:05 9:05 11:10 13:50 16:05 18:05 20:05 22:40
DG09	7:35 9:35 11:50 14:30 16:35 18:35 20:40 23:20
DG10	8:10 10:05 12:30 15:05 17:05 19:05 21:20 0:00
DG11	8:35 10:35 13:10 15:35 17:35 19:35 21:55
DG12	8:15 10:15 12:15 14:15 16:15 18:15 20:15 22:15
DG13	8:40 10:40 12:40 14:35 16:40 18:35 20:40 22:40
DG14	9:10 11:10 13:10 15:10 17:10 19:10 21:10 23:10
DG15	9:15 11:15 13:15 15:15 17:15 19:15 21:15 23:15
DG16	9:35 11:40 13:40 15:40 17:40 19:40 21:40 23:40
DG17	10:10 12:10 14:10 16:10 18:10 20:10 22:10
DG18	8:20 11:15 14:15 16:15 18:15 19:05 22:00
DG19	9:15 12:05 15:15 17:05 20:15 23:00
DG20	10:05 13:05 15:20 18:15 21:05
Ostiral eta jar bezperak	
Viernes y viéperas festivos	
DG26	0:10 0:40 1:10 DG07 14:50
Larunbatak/Sabados	
DG07	13:20 19:20 DG01 DG02 DG03
DG08	9:00 13:00 20:50 10:20 8:50 17:50 23:55 7:35 1:05
DG09	10:20 16:20 23:00 14:35 10:50 20:50 0:40 8:35 2:05
DG10	12:00 18:00 18:20 14:50 23:20 1:10 0:35
Igandak/Domingos	
DG01	8:05 9:05 1:05
DG02	13:00 18:50 DG01 DG02
DG03	9:00 14:50 20:50 10:50 17:50 23:20 10:20 19:25
DG04	10:50 17:00 21:50 14:50 20:50 14:40 19:20
Asteburua eta jalegunak	
Fines de semana y festivos	
DG05	6:55 9:55 12:35 14:35 16:35 18:35 20:35 22:35
DG06	7:55 10:55 12:55 14:55 16:55 18:55 20:55 22:55
DG07	8:55 11:55 13:55 15:55 17:55 19:55 21:55
DG08	10:05 14:05 18:05 22:35 DG03 12:35 17:05 21:05
DG09	10:35 15:05 19:05 23:05 9:35 13:35 17:35 22:05
DG10	11:35 15:35 20:05 0:05 10:05 14:35 18:35 22:35
DG11	12:35 16:35 20:35 11:05 15:05 19:35 23:35
DG12	13:05 17:35 21:35 12:05 16:05 20:05

SANPRUDENTZIO-BERGARA	
E/D DG501	
Lanegunak/Laborables	
DG04	8:40 11:00 13:40 15:40 17:40 19:50 22:30
DG05	9:10 11:30 14:10 16:10 18:10 20:30
DG06	9:40 12:20 14:40 16:40 18:40 21:10
DG07	10:10 12:50 15:10 17:10 19:10 21:50
DG08	8:05 10:10 12:30 15:30 19:05 21:30 DG08 12:20
DG09	8:35 10:40 13:10 16:05 19:10 22:05 6:20 14:20
DG10	8:25 11:05 13:30 16:10 19:30 22:10 7:20 16:20
DG11	8:30 11:10 14:05 16:30 20:05 22:30 8:20 18:20
DG12	9:10 11:30 14:10 17:10 20:10 22:50 9:20 20:20
DG13	9:30 12:05 14:30 18:10 20:30 23:10 10:20 22:20
DG14	7:55 10:05 12:10 15:10 18:30 21:10 DG02 13:35
DG15	7:35 10:50 14:45 18:45 DG01
DG16	6:10 7:45 11:45 15:45 19:50 6:40 13:10
DG17	7:05 8:45 12:50 16:50 20:45 8:10 16:10 DG05 23:35
DG18	7:20 9:50 13:40 17:45 10:40 18:40 23:30 0:35
Ostiral eta jar bezperak	
Viernes y viéperas festivos	
DG07	11:05 17:05 DG01 13:20 DG04 DG05 DG06
DG08	6:35 12:35 18:35 6:40 16:10 6:55 23:45 13:35
DG09	8:05 14:05 20:05 9:05 19:20 7:55
DG10	9:35 15:35 11:05 21:20 23:55
Igandak/Domingos	
DG01	8:40 12:40 16:40 19:40 9:10 13:10 19:10
DG02	10:35 14:40 18:40 20:40 DG01 11:05 16:10 21:10
DG03	13:35 20:05
Asteburua eta jalegunak	
Fines de semana y festivos	
DG04	11:55 16:25 20:25 DG05 10:35 13:45 17:10 20:35
DG05	8:55 12:55 16:55 21:25 6:35 11:10 14:35 17:45 21:10
DG06	9:25 13:55 17:55 21:55 7:45 11:45 15:10 18:35 21:45
DG07	10:25 14:25 18:55 22:55 8:35 12:35 15:45 19:10 22:35
DG08	11:25 15:25 19:25 9:45 13:10 16:35 19:45 23:10
DG09	8:05 11:20 15:20 19:20 23:20
DG10	9:20 13:20 17:20 21:20

SANPRUDENTZIO-ESKORATZA	
Lanegunak/Laborables	
DG04	8:50 12:10 15:50 18:50 21:40
DG05	9:20 12:50 16:20 19:20 23:10
DG06	9:50 13:30 16:50 19:50 23:40
DG07	10:20 14:10 17:20 20:20
DG08	10:50 14:50 17:50 21:00
DG09	11:30 15:20 18:20 21:40
Ostia/Viern DG05	
DG05	0:40
Larunbatak/Sabados	
DG06	11:40 17:40 23:40
DG07	6:35 12:40 18:35
DG08	7:40 13:40 19:40
DG09	8:40 14:35 20:40
DG10	9:35 15:40 21:40
DG11	10:40 16:40 22:40
Asteburua eta jalegunak	
Fines de semana y festivos	
DG04	14:05 19:05 0:05 DG03
DG05	10:05 15:05 20:05 9:35 13:35 17:35 22:05 6:55 14:55 20:55
DG06	10:35 15:35 20:35 10:05 14:35 18:35 22:35 8:55 16:35 22:35
DG07	11:35 16:35 21:35 11:05 15:05 19:35 23:35 10:55 16:55
DG08	12:35 17:35 22:35 12:05 16:05 20:05 12:35 18:35
DG09	13:05 18:05 23:05 12:35 17:05 21:05 12:55 18:55

BILBO-SANPRU	
Lanegunak/Laborables	
DG01	7:45 11:45 17:15
DG02	9:15 14:45 19:45
Larunbatak/Sabados	
DG01	10:00 14:00 20:00
DG02	8:00 12:00 17:00 22:30
DG03	12:30 14:30 20:30
Igandak/Domingos	
DG01	12:00 17:00 21:30
DG02	10:00 14:00 20:00 22:30
DG03	12:30 14:30 20:30

DONOSTIA-SANPRU	
Lanegunak/Laborables	
DG01	9:15 14:15 18:15
DG02	10:15 14:30 19:15
DG03	11:15 15:15 20:15
DG04	12:15 16:15 21:00
DG05	13:15 17:15 22:00
Ostiral eta jai bezperak	
Viernes y vísperas festivos	
DG01	14:00
Larunbatak/Sabados	
DG01	11:00 15:30 20:00
DG02	12:30 17:00 22:00
DG03	14:00 18:30
Igandak/Domingos	
DG01	8:00 14:00 20:00
DG02	10:00 16:00 21:00
DG03	12:00 18:00

LOIU-SANPRU	
Egunero/Diario	
DG01	6:45 9:45 15:45 23:15

VITORIA GASTEIZ-SANPRUDEN	
Lanegunak/Laborables	
DG01	7:45 10:30 13:30 18:15 21:15
DG02	8:30 11:15 14:30 18:30 21:30
DG03	9:15 11:30 15:15 19:15 22:00
DG04	9:30 12:30 15:30 19:30 22:30
DG05	10:15 13:15 17:30 20:30
Ostiral eta Larunbatak	
Viernes y Sabados	
DG01	22:55
Asteburua eta jai egunak	
Fines de semana y festivos	
DG01	7:55 10:55 13:55 16:55 19:55
DG02	8:55 11:55 14:55 17:55 20:55
DG03	9:55 12:55 15:55 18:55 21:55

EIBAR - SANPRUDENTZIO	
Egunero/Diario	DG568
DG01	7:20 10:20 13:20 16:20 19:20 22:50
Lanegunak/Laborables	
DG01	8:50 11:50 14:50 17:50 20:50
DG02	9:00 12:00 15:00 18:00 21:00
DG03	9:30 12:30 15:30 18:30 21:30
DG04	9:50 12:50 15:50 18:50 21:50
DG05	10:00 13:00 16:00 19:00 22:00
DG06	10:30 13:30 16:30 19:30 22:30
DG07	10:50 13:50 16:50 19:50 22:50
DG08	11:00 14:00 17:00 20:00 23:00
DG09	11:30 14:30 17:30 20:30
Ostir/Viern	
Jai bezperak	
Viernes fest	
DG01	11:05 17:05
DG02	13:05 19:05
DG03	15:05 21:05

Larun/Saba	
Asteburua eta jai egunak	
Fines de semana y festivos	
DG01	9:15 12:15 15:15 18:00 20:15
DG02	10:15 13:15 16:00 18:15 21:15
DG03	11:15 14:00 16:15 19:15 22:00
DG04	12:00 14:15 17:15 20:15 22:15
DG05	10:05 14:05 18:05 22:05
DG06	12:05 16:05 20:05 23:05

ARRASATE - SANPRUDENTZIO									
E/D	DG561	5:15	8:00	11:00	14:00	17:15	21:15		
Lanegunak/Laborables									
DG03	6:20	8:20	10:35	13:15	15:20	17:20	19:25	22:05	
4:50	6:50	8:50	11:15	13:50	15:50	17:50	20:05	22:45	
5:20	7:20	9:20	11:55	14:20	16:20	18:20	20:45		
5:50	7:50	9:55	12:35	14:50	16:50	18:50	21:25		
DG04	6:35	8:35	10:55	13:35	15:35	17:35	19:45	22:25	
5:05	7:05	9:05	11:35	14:05	16:05	18:05	20:25		
5:35	7:35	9:35	12:15	14:35	16:35	18:35	21:05		
6:05	8:05	10:15	12:55	15:05	17:05	19:05	21:45		
DG05	7:50	9:25	11:25	14:00	16:05	19:05	21:25	DG01	
6:00	8:00	10:00	12:00	14:05	16:25	19:25	22:00	8:00	
6:30	8:05	10:05	12:05	14:25	17:05	20:00	22:05	10:30	
7:00	8:20	10:25	12:25	15:05	18:05	20:05	22:25	16:00	
7:05	8:25	11:00	13:05	15:25	18:25	20:25	22:45	18:30	
7:25	9:05	11:05	13:25	16:00	19:00	21:05	23:05		
DG07	7:15	8:40	11:40	14:40	17:40	20:40		DG02	15:30
5:05	7:30	9:45	12:45	15:40	18:40		13:30	21:30	
7:00	7:40	10:45	13:35	16:45	19:45	Ini bezperak			
Ostiralak	DG07	15:00	22:30	Viñetas de festivos					
Viñetas	DG05	23:25	21:30	0:30	DG07 15:00 22:30				
Larunbatak/Sabados									
DG07	9:30	14:00	18:30	DG01	16:00	DG03	DG04	DG04	
6:30	11:00	15:30	20:00	8:55	19:00	6:20	23:50	6:50	
8:00	12:30	17:00		10:55	21:00	7:20	0:50	7:50	
DG02	13:30	15:30	21:30	DG05	23:40	23:20		23:50	
gandak/Domingos									
DG07	8:35	14:35	19:35	DG01	9:00	16:00	DG02	13:30	
10:30	16:35	20:35		10:55	21:00		20:00		
12:35	18:35			13:00			22:00		
Asteburak eta Jaiegunak/ Fines de semana y festivos									
DG05	6:30	9:40	11:40	13:40	15:40	17:40	19:40	21:40	
7:40	10:30	12:30	14:30	16:30	18:30	20:30	22:30		
8:30	11:05	13:05	15:05	17:05	19:05	21:05	23:05		
DG03	8:20	12:20	16:20	20:50	DG04	11:50	16:20	20:20	
8:50	13:30	17:30	21:20	8:50	12:50	16:50	21:50		
9:50	13:50	18:20	22:20	9:20	13:50	17:50	21:50		
10:50	14:50	18:50		10:20	14:20	18:50	22:50		
11:20	15:50	19:50		11:20	15:20	19:20			

EMAKUMEON JABEKUNTZA ESKOLA

ANDRAITZ ELKARTE FEMINISTA

2015/2016

Emakumeon jabekuntza, Mugimendu Feministaren aldarrikapena izan da aspaldidanik, baina emakumeok ez gara horren beharraz ohartu orain urte gutxi arte. Hala ere, gero eta emakume gehiago gara jabekuntza prozesuan murgiltzen ari garenok; jabekuntza eskolak ezinbesteko tresna bilakatu dira gure eskubideen eta beharren alde borrokatzeko. Azken urteotan presentzia handia hartu du jabekuntza hitzak gure jendartean; esparru ezberdinetan erabil dezakegun kontzeptua izan arren, bereziki, emakumeon kolektiboaren kasuan izan du bere ezarpenik esanguratsuen. Emakumeon jabekuntza ez da gaur egungo olatu feministak gure itsasertzetaraino ekarritako modako bizimolde berri bat, baizik eta Mugimendu Feministaren aldarrikapenei eta borrokari esker, XXI. mendean hainbat instituzioek eta botere organoek ere, baietsi eta bermatu duten beharri-zana.

Jabekuntza hitza ingelesezko empowerment berbatik dator, eta bere baitan lidergoa eta boterea ditu, zerbait eraldatzeko boterea. Hain zuzen ere, emakumea subjektu politikoa izatea ahalbidetuko duen jabekuntzaz ari gara. Horren arabera, esan dezakegu jabekuntza dela emakumeok gure bizitzari dagozkion erabakien eta baliabideen gainean esku hartzeko beharrezko dugun boterea.

Emakumeok etorkizuna eraikitzeko kapaz garela sinistu behar dugu; geure buruari baimena eman behar diogu orain arte mugatu dizkiguten esparruetan parte hartzeko. Gure bizitzako protagonista izan behar gara, eta berorren gidari bilakatu. Jakitun izan behar gara gure eskubideak ditugula eta gure helburuak betetzeko gaitasuna daukagula. Guk izan behar dugu geure buruaren erantzule.

Berdintasunean bizi den jendartea daukagula uste dugu, baina urruti joan gabe, norberaren ingurua behatuz gero, helburu hori lortzeko ezer gutxi aurreratu dugula ikusiko dugu; momentuz kontzientziario eta ikaskuntza prozesuetan murgilduta baikaude.

Gero eta emakume gehiago gara burujabetzaren kontzientzia hartzen ari garenok. Maila pertsonalean nahiz taldeka, egunetik egunera handitzen doa aldaketa bat nahi dugunon kopurua. Guretzat oso beharrezkoa da transformazio sakon hori burutzea, eta hori gure jabekuntzaren bitartez lortuko dugu. Hau dela eta, hasiera batean ezezaguna eta arrotza zitzaigun kontzeptuaren esanahia, gogotik ulertu dugu eta eguneroko ariketa bihurtu zaigu. Emakume izateagatik ditugun beharrak identifikatzeak eta emakumeon egungo egoera aldatzen lagunduko duten ekarpenak guk geuk egiteak ahaldundu egingo gaitu. Horrela, gure ongizatea eta parte-hartzea bermatuko ditugu, gure eskubideez eta askatasunaz gozatu ahal izateko. Azken finean, jabekuntza jarrera kontua da.

Egitaraua

GUINE FARE, DANTZA AFRIKARRAK

- **Irakaslea:** Marie Tourie, Guinea
Conakry-ko dantza tradizioletako irakaslea eta dantzaria
- **Eguna:** asteazkenak, 18:30-20:00
- **Egutegia:** urriak 14 eta 21, azaroak 4, 11 eta 18, eta abenduak 2, 9 eta 16



BATUKADA FEMINISTA

- **Dinamizatzaileak:** Ainara Sarasketa perkusionista eta Aran Vicedo musikaria eta konposatzailea
- **Eguna:** zapatuak, 11:00-13:00
- **Egutegia:** urriak 24, azaroak 14, abenduak 12, urtarrilak 9 eta 30, otsailak 20, martxoak 12 eta apirilak 9 eta 30.



EMAKUMEAK ETA MAITASUNA (Berdintasunetik maitatu)

- **Irakaslea:** Pepa Bojo, psikologoa eta talde dinamizatzailea
- **Eguna:** asteazkenetan, 18:15-20:15
- **Egutegia:** urtarrilak 13, 20 eta 27, otsailak 3, 10, 17 eta 24, eta martxoak 2, 9 eta 16.



Iaz Pepa Bojoren ikastaroan parte hartu zuen emakume taldea

ZAPALDUEN ANTZERKIA

- **Irakaslea:** Belen Nevado, aktorea, gidolaria eta zuzendaria (Detritus Teatruseko kidea)
- **Egutegia:** urtarrilak 16 eta 17
- **Ordutegia:** zapatua (10:00-14:00 / 16:00-20:00) eta domeka (10:00-14:00).

Izen-ematea: ikastaroa hasi baino astebete lehenagora arte.
a.jabekuntzaeskola@gmail.com / 615781068 beharrezkoa bada
Prezioa: langileak 50€ / Langabetuak eta ikasleak 15€.

Kontzejupetik



ARGITARATZAILEA: Oñatiko Udala

ZUZENDARIA: Iñigo Arregi

PUBLIZITATEA: Aratz Losada

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Aratz Losada

KOLABORATZAILEAK: Jerardo Elortza

eta Udal Euskaltegia

INPRIMATEGIA: Gertu

Tirada: 5.500 ale

Lege gordailua: SS-357/91

Posta-e: kontzejupetik@onati.eus

Publizitatea: publi@onati.eus

Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa

20560 Oñati (Gipuzkoa)

Tel.: 943 78 20 72

Kontzejupetik aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Azaleko argazkia: Danel Solabarrieta

GUTUNAK

Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorleraen izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g • 20560 OÑATI | Tel.: 943 78 20 72 | Posta-e: kontzejupetik@onati.eus

Gero arte, Anton

Leire Urrutia eta senideak

Lehenik eta behin, eskerrik beru-
lenak emutia gustauko xakun
hiletara etorri eta zuen gertutasun,
maittasun eta babesa emun zebein
danoiri. Jakin bagekixen Anton oso
maittatua zala herrixan, bai Oñatin, ta
baita Arrasaten be. Benetan esku
zabal eta bihotz haundiko gizona,
aspektu askotan eredu izan dana.

Lerro gutxitan ezin adierazi hainbat
eta hainbat sentipen...

Lekziño haundixa emun dozu

oinguan Anton; ixilian fan zara gure
albotik, baina utzi dozun hutsunia
ondiok be haundixaua izan da.

Benetan harro esan geinke gure
parte izan eta beti izango zarela.

Ohore guztiz, zure familixa;
MAITTE DOTSUGU.

Geroarte, Anton.



Taberna kontzeptu berria!



Pintxoak, errazioak...



Sukalde zerbitzua




Edari konbinatuak

Probatu itzazu!

* Errazio bereziak, azarokak ourenak eraman go dira.

ESPEZIALITATEA

Errazio bereziak: txupoa plambun, ibertokosh,
gontek beraketzarekin, marisko parrillada...



Harripe Taberna
Kale Zaharra 34
Tel.: 943 78 08 47

Gripearen kontrako txertaketa kanpaina urriaren 5ean hasi da

Astelehenaz geroztik gripearen aurkako txertoa har daiteke osasun zentroan. Kanpaina hau 65 urte-tik gorako gizon-emakumeei eta gaixo kroniko-ei dago bereziki zuzenduta. Iaz 1850 txerto jarri ziren Oñatin.

Maider Arregi bigarren bere saioan

Maider Arregi bigarren sailkatu zen Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako final zortzirenetako bere saioan. Aste honetako saioetako puntuazioen zain egon beharko du final laurdenetara sailkatzen den ala ez jakiteko.

Albizu-Martin txapeldun musean



Julian Albizu-Juan Martin bikoteak irabazi zuen San Migeletako VII. Mus txapelketa, Victor Sanchez-Juan Larrañaga Soralezeko bikoteari final-lean irabazita. Oñatiko saria ere beraientzako izan zenez, 900€ jaso zuten saritan.

Perosterena irabazle bolajokuan



Unai Perosterenak irabazi zuen San Migeletako bolajokua 6 txirlorekin. Josu Zumaldek eta Iñaxio Geretak osatu zuten podiuma desberdinketa jokatu ondoren. Danera 58 bolarik parte hartu zuten txapelketan

📷 HILEKO IRUDIA

Argazkia: Amaia Arzamendi



Iritegiko surjentzia, Arantzazu auzoan

CORTABARRIA

INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

Etxe eta lokalen gestio orokorrak

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta

- Haztendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behe • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@telefonos.es

Ilea, nahi duenarentzat

OLAKUA I

943716713

gestio@not+vello.es

30€

1.ena / 2. sesio

FOTOGRAFADORA • OPL. GAZTETZEA • AZALEKO CARBOKETAK

www.not+vello.com

AYLAN KURDI

Hiru urte besterik ez. Itsasoak, Aylan, kupidarik gabe jan zaitu ama eta anaiarekin batera. Irentsi zaituzte hiru-
rok, baina itsasoa beharbada errukituta, olatutxo berezi batzuk sortuz ekarri zaitu Turkiako hondartza batera eta goxo-goxo utzi zaitu bertan, lo itxura emanez hareazko sehaska zabal-zabalean, hilda. Aurreneko argazkian ikusi zaitugu ahozpe. Bigarren argazkian, jaso zaituen sorosle edo laguntzaileak bere besoetan goxo hartuta, etxe barrura lotara eramango zaituen irudi dirudi. Betirako loa! Betirako negarra!

Aspalditxotik, milaka afrikar lepo betetako txalupak iraulita hil eta hiltzen direla ikusi eta entzuteak baino zartako haundiago eman omen digu zure gorpuaren irudiak. Urte hauetako migratzaileen tragedia guztiek eta azken honek Europa Batasunaren batasun eza ageriago utzi

Bittor
Madina



digu. Hor ari dira orain ere Europako Gobernuak mugak ixten, paperik ez dituztenak espetxeratuz (Hungariak, alegia), soluziobideak tantanka eskainiz.

Ama eta anaiarekin batera lurperatu zaituzte Siriako zeure herritxoan. Azken bidaia hegazkinez egiteko aukera eman dizute. Zergatik ez hasieran horrela bidaia zure gurasoek mundu honetako "Eden" amestua barneratu dutenean?

Mediterraneo itsasoko "Hades" ilun eta hotzean leku askotako zu bezelako ume txo piloa ito eta bertan gelditu dira urte hauetan. Azkenak, irail honetan, beste lau ume eta hamaika emakume Greziako Egeo izeneko itsasoan, hilobi betirako. Ez digute urte hauetan hildakoen inoren izenik eman. Bai! eman digute! Bakarra eta berdina denontzat eta bakoitzarentzat: ITOAK.

Gaur, hemen, zutabetxo honetan, bildu-

ma luzea eta berezia agertu nahi dut, Aylan. Ez dut nahi zure izenaz bakarrik gogoratu. Tragedia luze honetan zu bezala hildako beste askorekin zaude lotuta: zu aipatuta, behean idatzi ditudan zerrenda luze horretako edozein izen, ezagunagoa eta maiteagoa bihurtu behar zaigu. Gainera, irakurri ahala, omenalditxo izango da zuretzat eta "condenados de la tierra" guztientzat.

Aglan, Ibrahim, Ahmad, Yusriyya, Nadi, Anwar, Zuraya, Gaafar, Magida, Kamil, Fayiza, Jalil, Durriyya, Ganim, Isam,

Hanan, Zahran, Zuhayr, Saba, Aziza, Abdul, Abbas, Sabriyya, Mahmud, Suad, Shaarawi, Mahir, Sadiq, Kirdir,

Orhan, Gebrayel, Amin, Ali, Muhtar, Fahir, Nuri, Osman, Kadife, Neriman, Ahmet, Naguib, Alish, Rauf, Saná,

Muhlan, Zayd, Hania, Abdallah, Adham, Omayma, Hammam, Idris, Karim, Fahmi, Naíma, Maryam.....



ORRI HUTS BATEAN

Askotan idazleok, edo "idazle" etiketa berori atxikitzen diogunok, maiz idaztea zer den ere ondo definiturik izan gabe, orri huts batek islatzen duen urduritasunean erortzen gara. Zenbat esanahi orri huts baten errailetan itsatsiak; zenbat nahigabe eta lilura. Amodiozko gutun bat idaztera ausartzen zarenean, sentimentu nahasien artean kolpeka bidali, ez-bidali dikotomian erortzean; edo, memorian gordea dena kanporatu nahian zaudenean; amets korapilotsu horien esanahia aurkitu beharra duzunean, abesti baten letrak idatzi, bertso baten errimak sortu...

Amaia
Aranzeta




Orri huts baten barnean izkutatzen dira maiz, gure geroa, gure bizitza edo bidea eraikiko duten hitz larri guztiak; idazkera narrasean izkiriatsuak, malkoz beteriko gutunazaletan isilpetuak. Zer litzateke bizitza, tentsio momentu hauek gabe?

Baina, idazleonek kasuan ametsgaizto bihurtzen da orri hutsaren metafora. Idazteak beharturik ezin aurrera egin gaudenean, zer idatzi eta hura nola egin, segunduak, minutuak aurrera doazela ohartu arren, orri hutsa, hutsa besterik ez dela ikusirik. Inspirazioa bait da gure erraila eta, zer egin gizakiak, ez soilik

idazleak, inspirazioak etortzerik ez balu? Posible ahal da inspirazioa aurkitzea? Edo, orri hutsaren parean aulkia eroso kokatuz, argia ikusi arte itxaron besterik ez dugu?

Hala ere, esan dezaket, adieraz dezaket, mundua bera inspirazioaren iturri infinitua dela. Eta, gozatzerik haina ez dugula, gure inguruan aurkitu genitzaken ideia berrien kutxa horretatik. Etxean bertan, leihotik at begiratzean, eskoletako hormen artean, mendi-tontorren magaletan, inguruan ditugun pertsona guzti horien artean... Nire kasu alegia, oraingoan azkena eta, momentuz, eskertu nezakedan bakarra: gaur gauean inspirazioaren miraria zuk eskaini bait didazu.

OÑATIARRAK MUNDUAN



eta MUNDUA OÑATIN



Izena: Ainhoa Errasti Lizarralde

Adina: 30 urte

Hong Kong



Izena: Mimoun Lmimouni Jaoui

Adina: 60 urte

Marokoarra

Urte eta erdi darama Ainhoa Hong Kong-en (Txina), baina aurretik beste hainbat hiritan bizi izan da. Erasmus-ari esker Kalifornian egin zituen Enpresa Zuzendaritza ikasketak azken sei hilabeteak. Gero Milanen eman zuen urtebete, 'Fashion Buying' (moda eroslea) ikasketak egiten. Hurrengo urte eta erdia Madril eta Bartzelona artean eman zuen lanean, eta handik Bolognara (Italia) jo zuen, lan eskaintza interesgarri batek erakarrita. Bertan bi urte eta erdi eman ondoren, bikotekidea Hong Kong-era bidali zuten lanera, eta Ainhoa berarekin joatea erabaki zuen esperientzia pertsonal eta profesional berrien bila.

Internetez moda eta diseinua saltzen duen *Yoox* (www.yoox.com/hk) enpresa italiarrean dihardu lanean *merchandiser* bezala Asiarako. Web orri nagusian dituzten produktuen aurkezpenaz arduratzen da bera, merkatuko gustuak eta joerak aintzat hartuz.

Oso gustura dago Hong Kong-en. Bizi-kalitate maila oso ona du, eta bertan bizitzea erraza omen da. Britaniar kolonia ohia izanik, denek ingelesa hitzegiten dute eta horrek asko errazten ditu gauzak.

Oso hiri kosmopolita eta kontrastez beterikoa da Hong Kong. Tradizioak mantentzen ditu, baina era berean oso moderno eta dinamikoa da. Etxe-orratzez josita dago, baina naturaz eta hondartzaz inguratuta.

Bidaia-eraketa ere oso gustoko du Ainhoa, eta horretarako ere aukera ugari ematen ditu Hong Kong-ek bere kokapenagatik. Zubi eta opor guztiak aprobetxatzen ditu leku ezberdinak eza-gutzeko: Tailandia, Vietnam, Filipinak, Bali, Japonia, Singapur, Taiwan... Bertako klima ere gustoko du, negua motza eta epe-la izaten baita.

Etxean bezala sentitzen dela esan digu. Familia eta lagun ez du ezer faltan botatzen. Etorkizunaz galdetua, "nork daki!" dio. Hiriburu handietan bizitzea gustatzen zaio eta aukera edukiz gero, nahiko luke beste herrialderen batean bizi.

Marokoko *Oujda* herrikoa jatorriz, orain dela bost urte iritsi zen Mimoun Oñatira. Aurretik Bartzelonan (12 urte), Bilbon (3 urte) eta Arrasaten (10 urte) bizi izan da.

Uruna, makarroiak eta era askotako pastak egiten dituen enpresa batean egiten zuen lan sorterrian, baina dena utzi eta honuntz etortzea erabaki zuen 1988an. "Eguneko jorala 5 eurokoa da, eta horrela ez dago bizitzetik. Gainera, aita oso gazterik hil zitzaigun eta bederatzi anai-arreba garenez, nolabait atera behar genuen bizimodua".

Bartzelonara iritsi zenetik hainbat lanetan jardun izan du: tabernako zerbitzari, sukaldeko laguntzaile, pintore, basolanetan, eraikuntzan... Arrasaten Fagor Ederlanen lanean aritu zen zortzi urtez, garbiketa enpresa baten bitartez, baina krisiaren ondorioz langabezia geratu zen 2009an.

Etxebidetik Oñatin bizilekua eskaini ziotenean etorri zen geurera. Gustora dago hemen, emaztea eta bi semeekin, baina urteak darama lana aurkitu ezinik, eta etsita dago. Pertsonalki ez du inolako arazorik izan, baina arrazakeria puntu bat somatu izan du lan eske joan denean. "Agian zorte txarra izango dut, baina...". Edozein lan egiteko prest dago: baso-lanak, garbiketa lanak, eraikuntza... Oraingoz Diru-Sarrerak Bermatzeko Errentari (RGI) esker (879 euro hilean) eta elikagaien bankuko laguntzari esker bizi da.

ARRI

Industria Hornidurak
Burdindegia

Goribar auzoa, 10 • Tel.: 943 78 11 18

suministrosarri@hotmail.com

*Oñatiarrak
zerbitzura!*



“ANDONI BERNAL ARRI EGI Garbi neukan Aloña Mendin amaituko nuela nire kirol ibilbidea”

BEDERATZI URTEZ ARRATE ETA ARRASATE TALDEETAN JOKATU OSTEAN, ETXERA ITZULTZEA ERABAKI DU ANDONI BERNALEK, AZKEN URTEOTAN ALOÑA MENDIK EMAN DUEN ESKUBALOI JOKALARI ONENAK. BERE UNERIK ONENEAN DAGOELA DIO. AZKEN BI URTEETAN LEHEN MAILA NAZIONALEAN ARITU DA ETA 150 GOL SARTU DITU DENBORALDIKO.

Eibarko Arrate taldearekin Andonik Zubikoan jokaturako partidu bateko irudia

Bederatzi urteren ondoren etxera itzultzea erabaki duzu. Zergatik?

Beti izan dut garbi Oñatin jokatzeko amaitu nahi nuela. Urte asko daramat etxetik kanpora, ordu asko kotxean, bidaiatzen, eta nire adinean (28 urte) beste gauza batzuk baloratzen dira.

Beste talde batzuen eskaintzak ere izan dituzu, ezta?

Bai, aurreko urteetan Irun eta Erreterriko taldeen eskaintzak izan ditut. Ohorezko Mailan jokatzeko, baina etxetik urrun samar geratzen ziren lanarekin batera eraman ahal izateko. Eta aurretik Eibarretik deitu didate

Lehen Nazionallean jokatzeko, baina Aloña Mendira etortzeko erabakia hartuta neukan.

Goi mailan ibili ostean, ba al duzu ilusiorik Aloña Mendin jokatzeko?

Bai, haundia. Talde ona dauka Aloña, eta ilusio handia dago taldean iaz bigarren mailara igotzea lortu ondoren.

Iaz Zubikoako armailak txiki geratu ziren igoera fasean. Ikusmina eta ilusioa piztu du taldeak zaletuen artean.

Bai, zikloak izaten dira. Duela hamar urte eskubaloian lehen maila nazionalera igo zen Alo-

ña eta oso urte politak izan ziren. Gero, saskibaloia urte ederrak eman dizkigu, eta orain ematen du eskubaloiarekiko grina piztu dela berriro. Iazko igoera fasean oso giro polita egon zen, eta ea gai garen horri eusteko.

Zer eskainiko diozu taldeari?

Beterania, taldeko zaharrena naizelako, eta esperientzia; urte hauetako esperientziak ematen duen lasaitasuna transmititzen saiatuko naiz. Hortik gainera, ahal dena jokatu eta taldeari lagundu ahal den lekutik. Bederatzi urte hauetan zehar ikasi takoa gazteei erakusten saiatuko naiz.

**150
GOL**
sartu ditu
denboraldiko
azken hiru
urteotan



Iaz igoera lortu ondoren, bigarren mailan (Euskal Liga) jokatu du aurten Izarraitz Aloña Mendik. Iaz arte jokalaria izan zen Aitor Aranburu, izango da taldeko entrenatzaile berria.

Azken hiru urteotan bataz beste 150 gol sartu dituzu denboraldiko. Zure ibilbideko unerik gozoenen zaudela esan izan duzu.

Bai, hala da. Arrasateko azken hiru urteak izan dira onenak, seguruenez. Aurretik, Arraten ere asko ikasi nuen, baina oso gaztea nintzen, eta garai zailak ere pasa izan ditut. Egia da azken urteotan gol asko sartu ditudala, baina hori ere bolada kontua izaten da. Golekin edo gol barik, taldeari ahal den dena laguntzen saiatuko naiz.

Bigarren mailan (Euskal Liga) ariko da aurten Aloña Mendi, iaz igoera lortu ondoren. Polita litzateke etxeko aldearekin berriz ere lehenengo mailara igotzea, ezta?

**Larunbat
arratsalde-
tan (18:00)
jokatuko ditu
etxeko
partiduak
Aloña Mendik
Zubikoa
kiroldedegian**

Bai, duda barik. Inbidia ederra pasatu nuen Aloña igo zenean orain dela hamar urte. Gero, zorionez, neuk ere lortu nuen igoera Arrasateko taldearekin, eta badakit zer den hori. Polita izango litzateke Aloñarekin igotzea, baina poliki poliki joan behar dugu.

Taldekideen artean Irizarrek eta biok bakarrik jokatu dugu bigarren mailan; beraz, lehen urtean sufritu egin beharko dugu, batez ere etxetik kanpora, zaleen laguntza asko igarten delako.

Aloña Mendik iazko igoera fasean erakutsi zuen mailan jokatzeko badugu ondo ibiliko gara. Lehenengo partiduek erakutsiko digute noraino iris gaitzekkeen. Momentuz, ilusio eta gogo handiz ari gara entrenatzen, eta hori inportantea da.



Perez-Bazeta txapeldun

Perez-Bazeta bikotea nagusitu da Herriko Pilota Txapelketan 22-13 irabazita finalean Aberasturi-Mendizabali. Kontsolazioko finalean Arabaolaza-Anduaga nagusi (18-6) Lizarralde-Oruetaren aurka. Guztira 33 bikotek parte hartu dute Aloña Mendiko Pilota sailak eta Gaztetxeak antolatutako txapelketa.

Motzean



Iparraldera joan da aurtengo txapela

Gilles Etxegoien artzain baxenabartarra eta 4 urteko 'Gaua' border collie-a nagusitu dira Oñatiko artzain txakur txapelketan. Fidel Alonso arabarra eta Jose M^a Pleguezuelos kataluniarrak osatu zuten podiuma. Jose Mari Bengoa oñatiarra ere maila onean ari zuen 'Eder' txakurraekin.

Julen Umerez AMPOr

Aloña Mendik Ulma taldeko Julen Umerezk denboraldi bikaina osatu du Junior mailako Gipuzkoako ranking-a irabaziz, eta datorren urtean afizionatu mailako AMPO talde indartsuan ariko da.



Arrasate-Oñati

Urriaren 10ean (17:00) jokatuko da 32. Arrasate-Oñati lasterketa. Izena aurrez eman behar da (10€) herrikrosa.eus edo Arrasateko Loramendi Intersport-en. Egunean bertan ezingo da izena eman. Oñatitik Arrasatera joateko autobusa egongo da eta zerbitzu hori erabili nahi duenak 2 euro gehiago ordaindu beharko ditu. Korrikako lasterketarekin batera, patinena ere egingo da. Hauek bost minutu lehenago abiatuko dira Portaloitik.

Oñati Begi Bistan 2015

Ilunpetan Argazki Taldeak 5.en urtez jarraian Oñatiko jaietan, plazan, Oñatiko argazkiez osatutako erakusketa jarri du. Erakusketa honek Oñatiko txokoak ezagutaraztea eta herritarrek argazkigintzara gehiago gerturaztea ditu helburu. Ilunpetan kideek gustu handiz aukeratzen dituzte urtero eskegiko diren 12 argazkiak, ondoren, hala nahi izan duenari oparitzeko. Jaien amaieran, izena eman duen jendearen artean zozketatzen baitira argazki hauek. Aurtengo edizioan ikusitakoak norbaiti gustatu bazaizkio, hona hemen zozketan parte hartzeko izen ematea egiteko helbide elektronikoa: **begibistan2015@gmail.com**.

Oñati Begi Bistan 2015 erakusketak ikusi ahal diren argazkiak bereziak dira. Izan ere, aurreko edizioaren batean analogikoan egindako argazkiak ikusi ahal izan diren arren, gehienetan argazkigintza digitala erabiliz egindako argazkiak erakutsi dira. Aurtun ordea, ARGAZKIGINTZA ESTENOPEIKOA izan da erabilitako teknika. Teknika honek ia prozesu guztia analogikoa du, hasi kamara sortzetik eta argazkiak errebelatzeraino.

Aurtun Ilunpetan kideak artisau bilakaturik aritu dira "Nesquik" eta "Baque" kafe latat argazki kamera bilakatzen (plazan ikusi ahal izan dira erabilitako laten antzekoak), eta ondoren lata hauekin herriko txoko desberdinetan argazkiak egiten. Emaizta herriko plazan ikusi dugun bilduma izan da; berezia. Argazkiak zuri beltzean, forma dimensionatuekin, lerro "okerrak"...

Inork teknika honen inguruan edo argazkilaritzaz gehiago jakin nahi badu, Ilunpetaneko kideekin harremanetan jarri besterik ez du egin behar. Argazki taldea irekita dago jende berria jasotzera.



Teknika estenopeikoz egindako argazkiak dira

— — — — Argazkigintza ikastaroak — — — —

ILUNPETAN taldeak argazkigintzako **HASTAPEN** eta **SAKONTZEN** mailako ikastaroak eskainiko ditu urriaren 13tik aurrera. **Hastapen** mailakoa asteartetan izango da (18:00-19:30). Kamera erabiltzen eta irudien konposizioarako oinarritzko ezagupenak emango dira. Prezioa: 60€.

Sakontze mailako ikastaroa oinarritzko teknikak ezagutzen dituztenei zuzenduta dago. Espresio moduak eta konposizioa landuko da, besteak beste. Asteartetan izango da (19:30-21:00), baina hamabostean behin, eta ikasturte osoa iraungo du, urritik ekainera.. Prezioa: 180€.

Izena emateko edo informazio gehiago nahi izanez gero, ilunpetan@gmail.com edo 605753966

Oñatiko XII. Mendia eta Natura ARGAZKI LEHIAKETA

Urtero bezala, Aloña Mendiko Mendi sailak Mendia eta Natura Argazki Lehiaketa antolatu du. Argazkilari guztientzat zabalik dago eta bi atal bereiziko dira aurtun: **GIZAKIA MENDIAN** eta **MENDI INGURUNEA**.

'A'sailean ('Gizakia mendian), gizakia mendian egiten dituen ekintzei (lehiaketak izan ezik) buruzko argazkiak onartuko dira: alpinismoa, mendi zeharkaldiak, trekking-a, eskalada, BTT...

'B' sailera berriz, mendi ingurunea erakusten duten argazkiak bidali behar dira: paisaiak, mendiak, flora, fauna...

Partaide bakoitzak gehienez hiru argazki aurkeztu ahal izango ditu sail bakoitzean, eta sari bakarra irabazi ahal du atal bakoitzeko. Oñati saria, bere atalean saririk irabazi ez duen oñatiarren arteko argazkirik onenarentzat izango da.



lax saritutako argazki bat, Iosu Garairena

ARGAZKIEN AURKEZPENA

Internet bidez aurkeztu behar dira argazkiak www.concursosdigitales.com webgunearen bidez, urriaren 18a baino lehen. Argazkiak JPG formatoan bidali behar dira erresoluzio handian (250ppp/50,8zm.x32zm. gehienez) eta erresoluzio txikian (72ppp/50,8zm.x32zm. gehienez). Sail bakoitzean aukeraturako 20 argazki onenak inprimatu egingo ditu antolakuntzak, eta horiekin erakusketa egingo da azaroaren 9tik 23ra kultur etxean. Atal bakoitzean 200€, 150€ eta 100€-ko sari bana emango da, eta Oñati Saria bi pertsonentzako afaria Aloña tabernan.



Irakaslea: **Arantzazu Lizarralde**
Astelehenak edo **asteazkenak**
14:30-17:00 / 17:30-20:00
 Taldeko **12** ikasle onartuko dira

Irakaslea: **Jasone Agirre**
Astearteak
15:00-17:00 / 18:00-20:00
 Taldeko **10** ikasle onartuko dira

Irakaslea: **Mirari Sagarzazu**
Ostegunak
 Haur eta gazteak: **17:00-18:00**
 Helduak: **18:30-20:00**
 Taldeko **10** ikasle



HELDUAK
 Irakaslea: **Luis Laskurain**
Astelehenak edo **astearteak**
16:00-18:00 / 18:00-20:00
 Taldeko **20** ikasle onartuko dira

HAUR ETA GAZTETXOAK
 Irakaslea: **Mayra Jiménez**
Asteazkenak
 6-9 urte: 17:00-18:30
 10-15 urte: 18:30-20:00
Ostiralak
 6-10 urte: 18:30-20:00

Irakaslea: **Arantxa Madinabeitia**
 HELDUAK
astelehen eta **asteazkenak**: 19:00-20:30
 HAUR ETA GAZTETXOAK (7-12 urte)
Asteazkenak: 17:00-18:30
 Taldeko **10** ikasle onartuko dira

IZEN-EMATEA: urriaren 7tik 16ra, kultur etxean (16:30-20:30) / kultura.idazkaritza@onati.eus **MATRIKULA:** urriaren 21etik 30era ordaindu beharko da. Helduak: 76,50€; Haur eta Gaztetxoak: 56€; Estantazio ikastaroa: 25,50€ (Matrikula ordaintzetik salbuetsita egongo dira, Oñatin erroldatutako langabetuak, prestazio ekonomikorik jasotzen ez dutenak. **OHARRA:** Eskaintako plazarik baino jende kopuru handiagoak izena ematen badu, zozketa bidez egingo da aukeraketa..



Margo lehiaketa

Juan Jose Altuna bergararrak (600€), Esteban Oroz eibartarrak (400€) eta Anton Urreisti mendararrak (300€) irabazi dituzte San Migeletako aire libreko margo lehiaketako sariak. Oñatiar onenaren saria (300€) Santi Ugarterentzat izan da. Hamasei partaide izan dira. Gazte mailan (-16 urte), Ane Urzelai legazpiarra (100€), Ines Uriarte (oparia) eta Mad-di Altolagirre (oparia) izan dira sarituak. Lanak kultur etxean dagude ikusgai urriaren 11rea arte.



'Iparragirre Oñatin' liburuan

Abenduaren 5ean berriro taularatuko dute antzezlanak Santa Ana aretoan

Olaitturri elkarteak iazko jaietan taularatu zuen 'Iparragirre Oñatin' antzerki musikala liburu formatoan argitaratu dute orain, ikuskizuneko testuak, bertsoak, kantak eta partiturak bilduz. Antzezlanak zuzendu zuen Iñazio Irizarrek berak idatzi du liburua, eta Irizarrek berak aurreratu zuenez, jendearen eskariari erantzunez berriro taularatuko dute 'Iparragirre Oñatin' antzezlanak abenduaren 5ean. Sarrerak Txokolateixan daude jada salgai, liburuarekin batera 5eurotan.

Oñatiko Lehen LITERATURA TOPAKETA

Urriaren 24a **Bibliotekaren Eguna** da eta hori ospatzeko Oñatiko Lehen Literatura Topaketa antolatu du udal liburutegiak lau idazlerekin: Cristina Morano (Madrid, 1967), José Daniel Espejo (Orihuela, 1975), Hedoi Etxarte (Iruñea, 1986) eta Danele Sarriugarte (Elgoibar, 1989). Horrez gain, haur nahiz helduentzako ipuin kontaketak eta liburutegia ezagutzeko bisita gidatuak ere egongo dira urrian zehar

URRIAK 24,
LARUNBATA,
KULTUR ETXEKO
ZINE ARETOAN,
19:00ETAN



**IDAZLE
GONBIDATUAK**
Cristina Morano
José Daniel Espejo
Hedoi Etxarte
Danele Sarriugarte



Udal liburutegiak literatura topaketa berezia antolatu du 2015/2016 ikasturteko literatur tertuliei hasiera emateko. **Cristina Moyano, José Daniel Espejo, Hedoi Etxarte** eta **Danele Sarriugarte** idazleek mahainguru batean parte hartuko dute, **Ruben Ariasek** (gaztelarazko *Tertulixan* taldeko dinamizatzailea) gidatuta.

Hainbat galderari erantzun beharko diote idazleek: zein da literaturaren egitekoa gaurko gizartean? Ze lotura dago konpromiso politikoa eta literaturaren artean? Eta kontzientzia eta akzioaren artean? Eta akzioa eta mistikaren artean?... Literaturen eta idazleen inguruan dauden estereotipoek ere hitz egingo dute, eta baita beraiei buruz ere; nondik datozen irakurle gisa; nola irudikatzen duten beraien irakurlea, eta nolakoa izatea gustatuko litzaiekeen; zer nolako hartuemana duten beste idazleekin...

Galderei erantzuteaz gain, beraien testu esanguratsuenak edo gaiarekin lotura dutenak ere irakurriko dituzte idazleek.



DANELE SARRIUGARTE izango da aurten euskarazko *Tertulixan* taldeko moderatzailea

Orain dela pare bat urte hasi ginen irakurketa kluba antolatzen: **Tertulixan** izeneko taldeak hain zuzen ere. Bi talde ditugu Udal Liburutegian, bata euskaraz eta bestea gazteleraz. Esan beharrik ere ez dago, taldeak pozik eta lanean sendo ari direla. Baina gure lana proposamen berriak sortzea denez, dinamizatzaile berri bat aurkitu dugu euskarazko taldea eramateko. Urritik aurrera eta hilero DANELE SARRIUGARTE izango dugu moderatzaile lanetan.

Literatura Kluba zer da? Hilero pertsona talde bat elkartzen da, alde zuzenetik irakurri duten liburu baten inguruan solasean aritzeko. Moderatzaile batek eztabaidak bideratzen ditu. Orokorrean, jarduera gogobetegarria izaten da, taldeko partaideen iritziek asko aberasten dutelako norberak liburu irakurri duenean jasotako inpresioa.

Irakurketarekin gozatzen duten pertsonak etortzen dira solasaldietara, bide batez, egile eta estilo literario desberdinak ezagutu eta eleberriaz gain beste genero batzuetara hurbilduz. Posible izanez gero, liburuen egileek solasaldietan parte hartzen dute.

Nola funtzionatzen du? Aldez aurretik izena eman behar den doako jarduera da (**urrian zehar** eman dezakezue izena). Biblioteka aukeratutako liburuak lortzeaz arduratzen da, taldekideek maileguan eraman dezaten.

Jakin ezazu solasaldietan ez duzula ahots goran irakurri beharko eta ez zaudela hitz egitera behartuta. Liburuak bukatzeko astirik ez baduzu ere, solasaldietara etor zaitezke.

ANIMATU ZAITEZ!!

Japoniar Rakugoa euskaraz



Japoniako ahozko literaturan 400 bat urteko tradizio duen generoa da Rakugoa. Barrea eragiteko kontatzen diren istorioak dira. Hiromi Yoshida japoniar euskaldunak eman zuen ezagutzera Euskal Herrian, eta orain Axun Eskalada, Arantzazu Maiz eta Maider Ibarguren aktoreak ari dira zabaltzen Rakugoaren tradizioa (https://youtu.be/ih11GkPMx_4).

Urriak 21, asteazkena, 19:00, helduen liburutegian.

Ipuinetako pertso-nahiak sortuz



Eider Eibar ilustratzailea

Ilustrazio tailerra 5-10 urteko haurrei zuzendua. Eider Eibar ilustratzaileak bere lanbidearen nondik norakoak azalduko ditu eta, gero, haurren laguntzarekin eta guzien artean erabakiak hartuz, pertsonaia ezberdinak marraztuko ditu. Amaitzeko, haurrek beraiek sortuko dituzte beraien pertsonaiak. **Urriak 24, larunbata, 12:30, Santa Marina plazan.**

Liburutegia ezagutzeko bisita gidatuak

Ikastetxeekin elkarlanean 4 urteko haurrei zuzendutako bisita gidatuak egingo dira liburutegian urriko azken astean. Lur Korta ipuin kontalaria izango da gidaria. Hainbat ipuin kontatuko dizkie haurrei, eta liburutegian zer dagoen erakutsiko die.

Haurrentzako ipuin kontaketa saioa



Udako geldidunaren ostean, 'OSTEGUN KONTALARIAK' ipuin kontaketa saioak hasiko dira berriz ere hileroko azken ostegunetan. Hil honetakoa 3-6 urte arteko haurrei zuzendutako egongo da, Lur Kortaren eskutik. Saiorako gonbidapenak urriaren 19tik aurrera eskuratu ahal izango dira. **Urriak 29, osteguna, 18:00, Haur liburutegian**



E-READER BATEN ZOZKETA

Urrian zehar liburutegiko mailegu zerbitzua (liburuak, pelikulak, diskoak) erabiltzen dutenen artean e-reader bat zozkatuko da.

Oñatiri buruzko

JAKINGARRIAK

> Elortza mariskala

Bukatu dira jaiak, joan dira barrakak, eta Elortza jeneralak ere bake ederra hartuko zuen. Plazako iturriko irudiaz ari gara, noski. Oñatik eman duen semerik ospetsuenetako bat izan zen, baina seguruenez herritar askok ez dakite nor izan zen Francisco Antonio Elorza, Araotzeko mariskala.

Agerre-Garaikua baserrian jaio zen 1798an, Iñaki Zumaldek argitu zigunez. Tomas Elorza Balzategi eta Maria Josefa de Agirre Lizaur senar-emazteen lau semeetan bigarrena zen. Bere haultzaroari buruz ez dakigu ezer, baina 13 urterekin Mallorkako militarren eskolan sartu zen Artilleriako kadete bezala Matematika ikastera.

Ez dakigu zerk eraman zuen ejerzitorea, tradizio militarrik gabeko nekazari-familia xume bateko semea baitzen.

Akademian hiruzpalau urte eman ondoren, tenienteorde graduarekin irten zen. 1820ko altxamenduan parte hartu zuen, bere trebezia eta gaitasunengatik nabarmendu zelarik, teniente koronel gradua eskuratuz. 1823an Frantziatik iritsitako 'San Luisen' ehun mila semei' aurre egin zien Estatu Nagusiko buruzagi gisa,



Trubia-ko (Asturias) herrian jaso zuten Elortza jeneralaren omenezko irudia, honek egindako lana eskertuz. Irudi haren kopia bat Oñatiko Udalari eman zion Familiak, eta plazako iturrian dago

baina burua makurtu behar izan zuen eta Frantziara ihes egin.

Erbestealdian ikasteari ekin zion. Natur Zientziak, metalurgia eta meategian ustiaketa ikasi zuen. Londreseko galdategietan egin zituen praktikak.

1829an Espainiara itzultzeko baimena eman zion Fernando VII.a erregeak, eta Marbellako meategietako zuzendari izendatu zuen. Erabat zaharkituta zeuden instalazioak berritu eta kalitate handiko burdina ateratzen hasi zen Espainiako hegoalde oso-rako. Bere izena eta ospea berehala zabaldu zen estatu osoan. Sevillako burdin-meategi bateko zuzendaritza teknikoan eman zioten, eta honi ere etekin handia atera zion, Espainiako enpresarien artean ospe handia irabaziz.

1843an Trubia-ko (Asturias) instalazioak handitu eta berritzea enkargatu zion gobernuak, eta orduz geroztik herri hari loturik geratu zen Elorzaren izena, hura izan baitzen bere maisulan inportanteena, azpiegitura eta teknologia berritzailea aplikatuz, eta estatuko enpresa nagusi bihurtuz, bai arlo mitilitarrean eta baita zibilean ere.

**ARANBURU
ALTZARIAK**

Kale Zaharra, 21
Kale Berria, 11
Lizaur A., 7
OÑATI
Tfnak: 78 11 60 / 78 05 73

**ESTILO
GUZTIETAKO
ALTZARIAK**

**LANPARAK,
TAPIZAK,
KORTINAK**

S distira
estetika zentrua

- Manikura eta Pedikurak
- Solarluma
- Gorputzeko Tratamenduak
- Aurpegiko Tratamenduak
- Depilazioa

San Lorenzo 4 behea | Tel. 943 78 08 86 | 20560 OÑATI
email/twitter: estetika.distira@gmail.com

HISTORIA TXATALAK

Parrokiako
bitxikeriak

> Mikel Deunaren parrokiarekin lotutako bi datu bitxi ekarri nahi ditugu oraingoan atal honetara.

Batak bere handitasun edo tamainarekin du zerikusia. Berau ikustera etorri ohi diren turista asko liluratuta geratzen dira gure parrokiaren edertasunarekin, eta ez da gutxiagorako, izan ere, San Migel parrokia Gipuzkoako bosgarren elizarik handiena baita azaleran, 1.262m²-rekin. Handiena Donostiako Artzai Onaren eliza da (1.812m²), eta ondoren datoz bertako Santa Maria eliza (1.536m²), Tolosakoa (1.488m²) eta Segurakoa (1.363m²).

Beste "ranking" batean berriz, buru-buruan azaltzen da Oñatiko parrokia, izan ere, aldare nagusia altuen daukan estatu osoko eliza baita. Kondearen hilobia Errosarioko kaperan egon zen aurrena, baina aldare azpiko kriptara eraihi ahal izateko jaso behar izan zuten aldare nagusiaren kota.

Bestalde, Oñatiko parrokia da klaustroa erreka gainean eraikita duen Espainiako eliza bakarra.

Goribar

> Jerardo Elortza

Kaleetik oso hurrean aurkitzen den baserri- nahiz industria-giroko auzo honek makina bat aldakuntza izan ditu historian zehar, izenez eta izanez. Erdi Aroan **Bolibar** zeritzan hasieran, **Boribar** geroago, eta **Goribar XVI**. mendetik aurrera. Mendebaldeko euskararen eremuan leku askotan agertzen den **bolu** (errota) gehi **ibar** berbetatik ei dator. Beraz, **Olalde** baino beheratxoago zegoen antzinako errota batetik etor dakioke izena auzoari. Beste askotan bezala, ola bihurtu zen hasierako bolu hura XVI. gizaldiaren amaieran. Auzoan bertan beste bat azaltzen zaigu, **Errota barri**, 1593ra orduko. Izen askoz modernoagoak ditugu **Casablanca**, 1850etik aurrera eta auzoaren zati bati dago-kiona; eta **Otadui zuhaiztia** 1960ko hamarkadan, arboleda eta handik beherako etxe-multzak bereganatzen dituen, Casablanca barne.

Goribarko olak, hainbat mendetan lanean jardun ondoren, birmoldaketa sakona izan zuen 1867 aldera, Aretxabaletako Bedoñatik etorritako **Kornelio Garai Zuazubiskarrek** pospolo-fabrika gisa aritzeko egokitu zuenean, Kale zaharreko Kurtzetxo ondoko presa zaharra eta malatua aprobetxatuz. Harrezkero, eta gorabehera batzuen

**Oñatiko
industriagune
trinkoene
tako bat
bilakatu da
Goribar**

ondoren, **Garainekoa** izan da Oñatiko industriarik klasikoena, 1960ko hamarralditik aurrera kooperatibak indartzen hasi ziren arte behintzat. Edonola ere, ola zaharraren inguru horretan beste tailer eta lantegi asko eraiki ziren XIX. eta XX. mendetan zehar: besteak beste, **Arrazolaneko zurrategia** (kurtideria); **Mugartza, Ugarte eta Konpainiaren fundizioa**; **Loiola txokolate-fabrika**; **Santi Kor-kostegirena**; edota hasierako **Txintxurreta** eta **Ulma** hodi-fabrikak arboledan. Hartara Oñatiko industriagune trinkoetako bat bilakatu da Goribar.

Tamalez, industriak eraikitzeak beste baserri eta etxe interesgarri batzuk eraistea ekarri du. Adibidez, auzoari izena ematen zion **Goribar Haundi** baserri dotorea, edota **Ginea-Elortza** tarrek Antzoko parean jasoarazitako **Aloña-alde** eta **Ibai-ondo** txalet-jauregitxo txanbelinak. Zutik dirau oraindik saihesbi-dearen ertzean **Goribargoiti** baserria, **Manuel Umerz** euskal idazlearen jaiotetxea. Badu Goribarrek ermita polita gaintxo batean: **Santa Katalina**, eta bere alboan egon zen 50en bat urtean parrokiatik kanpora egindako lehenengo **hilerria** XIX. gizaldian; eta Ugartondo baserria baino goratxoago kokatu zen **San Bartolomer**en baseliza, Belatxarra inguruan, duela ehun bat urtera arte.



ARRIZABALAGA
Aroztegia

Berezaio Ind. 10
Tel. 943 78 14 64



PAKITA
Altzariak

Sta. Marina, 8
Tel. 943 78 02 21

BUNALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIKOA ENPOTATUTURIKO ALTZARIAK

IRAZOLA
Okindegia

Larrañeta buzoia, 44
Tel.: 943 78 25 97
Mug.: 688 630 754
OÑATI




Baserriko egia: Oñatiko buzoia

AGENDA

10

URRIA



ZINE KLUBA

> **URRIAK 8 / 20:00**



Zine-Klub denboraldiari hasiera emango zaio 'Requisitos para ser una persona normal' (Espainia, 2015) filmarekin. (Zuz.: Leticia Dolera). Kultur etxean.

HAURREN ZINEA

> **URRIAK 10 / 17:00**

Haurrentzako zine saioak hasiko dira kultur etxean.

ERAKUSKETAK

> **PINTURA ERAKUSKETA**

Oñatiko pintura ikastaroko ikasleen lanak ikusgai kultur etxean urriaren 11 arte.



Korrontzi

OÑATIKO VII. TRIKITI JAIALDIA

> **URRIAK 17, 17:30**

SANTA ANA ANTZOKIAN

Lizargarate Trikitizale Elkartek antolatua, Oñatiko VII. Trikiti Jaialdia ospatuko da urriaren 17an Santa Ana antzokian, 17:30. Sarrerak (12€) Arrano eta Izarraitz tabernetan daude eskuragarri, edo enkargu bidez lizargarateelkartea@gmail.com helbidean.

PARTAIDEAK:

- Ane, Amaia eta Irati
- Epelde eta Lutxurdixo
- Korrontzi
- Arakama, Dorronsoro eta Larreburu
- Zalao Zenarruzabeitia
- Intxausti anai-arrebak eta Harkaitz Allur
- Astizaran II, Izer eta Mikel Markez

HITZALDI ZIKLOA



Oñatiko Sanatana Dharma Yoga eskolak hitzaldi zikloa antolatu du 25. urteurrena ospatzeko. Hitzaldiak irekiak dira herritar guztientzat.

> **URRIAK 6 / 19:00**

'Yo soy importante, tú eres importante' Hizlaria: Manuel Paz. Kultur etxean.

> **URRIAK 9 / 19:00**

'Yoga y mente'. Hizlaria: Alfredo Iglesias Kultur etxean.

> **URRIAK 14 / 19:00**

'El Yoga en nuestros tiempos' Hizlaria: Roman Agirre. Kultur etxean.

> **URRIAK 16 / 19:00**

'Yoga y emociones'. Hizlaria: Javier Aizpiri.

HITZALDIK

> **URRIAK 7 / 17:30**

'¿Cómo cuidar y prevenir la gripe?'. Hizlaria: Oihana Ezkurra medikua Pake Leku elkartean.

> **URRIAK 20 / 17:30**

'¿Cómo mantener en forma tu memoria'. Hizlaria: Lahar elkarte. Pake Lekun.

+ INFO

Eskaneatu ezazu QR kode hau agendako deialdi guztiak ikusi ahal izateko.



**MEKANIZATU ETA KONPONKETAK OROKORREAN
TORNO ETA FRESADORAK, ZENBAKIZKO KONTROLA**

Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)
Telefonoa: 943 78 11 15 • Faxa: 943 71 82 50



IKASTAROAK

> **KZ GUNEA / Urrian zehar**
'Google Apps' (urriak 7-21),
'Sare sozialak' (urr.22-30)
eta 'Ofimatika orokorra'
(urr. 5- aza. 4) ikastaroak es-
kainiko ditu KZguneak urrian..

> **ARGAZKI IKASTAROA**
Oinarrizko argazki ikastaroa
Plazaola argazki dendan.
Urriaren 24tik abenduaren
5era arte, larunbat goizetan
(9:00-13:00. Prezioa: 75€.
Plaza mugatuak (12). Izen-
ematea: Plazaola argazki
dendan eta [www.plazaola-
foto.com](http://www.plazaola-foto.com)

> **ESKULAN ETA SORMEN
TAILERRAK FRANTSESEZ**
Irulea, ehungintza, tapiza,
feltroa, papera, birziklapena,
buztina, estanpazioa, fimo
pasta... Lehen Hezkuntzako
(17:00-18:30) eta DBHko
(15:30-17:00) neska-muti-
koei zuzenduta. Astean egun
bat. Informazioa eta izen
ematea: 645499235 (Conchi
Moreno) edo [lanatalanmo-
reno@gmail.com](mailto:lanatalanmo-
reno@gmail.com)

OÑATIKO VI. LABURMETRAI RALLYA

> **URRIAK 31**
GAZTELEKUAN

Herriko kale eta txoko
ezberdinak zine plato
bihurtuko dira urriaren
31n, Oñatiko Laburmetrai
Rallyaren 6. edizioa
ospatuko baita. Izen-
ematea urriaren 14tik 28ra
zabalduko da, eta izena
ematen duten lehen 15
taldeek parte hartu ahal
izango dute.

-olrallya.wix.com/olarrallya

ODOL ATERALDIA

> **URRIAK 9 / 17:30-19:30**
Hil honetako odol ateraldia
Txantxiku ikastolako aretoan.

MENDI IRTEERAK

> **URRIAK 18 / 09:00**
'Zurkutz-Malkorra' Arantza-
zuko Parketxeak eta Arantza-
zuko Adiskideen elkarteak
antolatutako irteera.

LIBURUTEGIKO BERRIENAK



Liburua

"Confesiones de una runner"



Liburua

"Música para leer"



Liburua

"50 síntomas que no..."



Liburua

"La vida secreta de Rebecca..."



Liburua

"Hartz Txiki"



Liburua

"Sonetoak"

MERKATU TXIKIA

> **Garajea** alokatzen da Errekalde auzoko 17. atarian.
Neurriak: 4,45x2,70. Deitu: 667957848.

> **Etxebizitza** salgai Oñatiko erdigunean. 68m², bi logela,
komuna, sukaldea eta egongela. Guztiz hornitua. Prezioa:
179.000€. Tel.: 659720664

> **Ingeleseko** eskolak ematen dira. Talde txikiak. Maila
guztiak. Deitu: 656746127

> **Etxea** alokatzen dut San Lorentzo auzoan. 635710616

> **Etxea** (85m²) alokagai Errekalde 13an. 3 logela,
komuna, sukaldea, egongela eta balkoia. Igogailua eta
garajea ere bai. Dena berrituta, estrenatzeko. Deitu:
660611717

> **Garajea** alokatzen edo saltzen da Lizauren kalean.
Interesatuak deitu: 677895301

> **Garajea** alokatzen da Olakua auzoan. Interesatuak
deitu: 610686030

> **Babes** ofizialeko etxebizitza salgai San Martinen. 3
logela, 2 komun, trastelekua eta garaje irekia. Prezioa:
175.000€, negoziagarriak. Deitu: 688812869 edo
666340613

> **Ugarkalden** babes ofizialeko etxebizitza salgai garaje
eta trastelekuarekin. Sukaldea, 2 logela, komuna eta
egongela. Prezioa: 129.000€. Deitu: 679 526 422.

> **Garajea** alokagai edo salgai Olakua 9an prezio eko-
nomikoan. Interesatuak deitu: 943781936 / 665709332

GUARDIAKO FARMAZIAK



ANDUAGA San Lorentzo 3, 943 78 21 16
Urriak 13, 21, 22, 30 eta 31, eta azaroak 1.

IGARTUA Kale Zaharra 1, 943 78 01 22
Urriak 6, 14, 15, 23, 24 eta 25, eta azaroak 2 eta 3.

GARATE Kale Barria 42, 943 78 05 58
Urriak 7, 8, 16, 17, 18, 26 eta 27, eta azaroak 4 eta 5.

JULDAIN Kale Barria 6, 943 78 11 28
Urriak 9, 10, 11, 12, 19, 20, 28 eta 29 eta azaroak 6, 7 eta 8.





ITTEN BAT

(*) Itten: arrastua, pista

Zer xabillagu/xabiñagu?

Karen: Jaixen programia ikusi don?

Bea: Baitta aukeratu be gustoko ekittaldixak!

Karen: Eta zer xagon ba, gustokua?

Bea: Ba, agorraren 20xan *Argia eguna*, 26xan *Biñakako FRONTEfemiNista Txapelketia*, 28xan *Trikixarangia* kalerik kale, eta gero disko fiesta Amaia Txintxurretarekin...

Karen: Egon hadi isillik! Eñonan uste guretake hainbeste gauza egongo ziranik!

Bea: Eta eztonat danak esan, zirindaria akabera bagikua don-eta!

Karen: Bueno, bueno, bañoian agendia etara eta apuntaittera, etxonat gura bakarrik be galtzerik-eta!

Bea: Ba, gertatu hadi, aurtan **oiñetakuak urratu arte** dantzaz egin bihar xonagu -eta!

Karen: Bai horixe, aurtan plazako zoruari lustria etara bihar txanagu!



Goguan hartzekuak

HILLABETIEN IZENAK

Ilbaltza, **otsailla**, **martixa**, **apirilla**, **mariatza**, **bagilla**, **garagarrilla**, **agustua**, **agorra**, **urrixa**, **zemendixa** eta **abendua**. (mugatu singularrian, izentaitteko modurik normalena)

Ilbaltzian lurra lo daguela esan leike. **Otsaillian** aratiztixak izaten dira, eta katuak, berriz, altan. **Martixan** oraindiok badaki edurra egitten, kontuz gero! **Apirillaren** azkenian hostua haitz gaiñian. **Mariatzian** kukua etorten da, **bagillaren** azkenetan ezkutaitteko. **Garagarrillian** garixa ebagi, jo eta jasoteko garaixa dogu. **Agustuko** Andamarittarako arbixa ereitten da eta San Agustiñetik aurrera eguraldixak udazken itxuria hartzen dau. **Agorrian** Santikutzak Legazpin eta San Migelak Oñatin. **Urrixan** iria ebaten da, eta usuak be agerketan dira, itsasantzar eta oillagorakin batera. **Zemendixan** lurra boldaatu eta garixa erein bihar da, San Andresetarako aixkomete. Eta **abenduan**, gabonak gaiñian, Gabon egun, Natibittate eta Gabon zaharrekin.

Hutsuniak bete

1. Nunbaitten entzun dot izen hori. Badakot horren
2. Eskulan ikusgarrixak egitten dittu. Mutiko urten dosku honek!
3. Guazen ibilli bat egittera; hor silloian geratu barik!
4. Horeixak jo eben atzo Oñatin, eta ordu erdi inguruan eurixa egin eben..
5. Loterixia tokau xakola eta aberastu egin dala. Bai zera, dosku horrek!

Aukerak: anportuta / idolaz / artetsua / larakua sartu / entzueria /

Beste modu batera esan

1. Ume txikiñak oiñez ibiltten hasi
2. Sekretuak
3. Harrokerixak edo agokadak esatia
4. Mokadutxua (luntxa)
5. Saiatua, argixa
6. Gela bat bentilau

Aukerak: oriau / otamena / isil-kontuak / taka-takan hasi / hauspoketxak esatia, botatia / perkatxa

EUSKERAZ EGOGI

(*) Atzo emun
dotsuten. Atzo
esan xaten...

Sarrittan entzuten dira horrelako formak indikatiboko oraiñaldiko adizkixai '-N' gehittuaz osotu diranak. Horrein ordezt lehenaldiko adizkixetara jo biharko geke, gure hizkundia erabat pobretu gura ezpadogu behintzat.

Orduan:

• Gaur **emun dotsut** eta atzo **emun notsun**.

• Eguardixan **ekarri dot** eta hereñegun **ekarri neben**.

• Goizian **esan xat** eta fan zan astian **esan notsan**.

• Bazkalostian **ikusi nau** eta atzo illunkaran **ikusi ninduen**.

Beste modu batera esan
1. Taka-takan hasi
2. artetsua
3. anportuta
4. idolaz
5. larakua sartu

Hutsuniak bete
1. entzueria
2. artetsua
3. anportuta
4. idolaz
5. larakua sartu

ERANTZUNAK



San Migel errotako presia

Herriko zaharrenetarikoa izango zan **San Migel errotia**, orain San Juan kaleko turismo-bulegua daguen parajian egue-na. Oñatiko jauntxo nagusixena zan, **Gebatarrena**, eta euren patroitzapeian eukain San Migel parrokiako elizgizonekin batera manejaitten euen. Etzan negozio makala, kondepekuak garixak eta artuak han ixoteko obligaziñua izaten euen-eta. Izena hortik etorkixon: parrokiara onduan eguelako eta abadiak be parte eukaillako irabazittan.

Baiña errotiorri eragitten otsan ura batzen eben **presia** askoz gorago zan: **San Martin azpizan**, **Ubao errekan**, honek Olaran errekiarekin bat egitten dauen txoko horretan; **640 metro inguruko ibilbide luzia eukan malatuak** presatik errotaraiño. Dana dala, ondo aprobetxautakua. Izan be, **bost labadero bost**, haundi eta txiki euren puxeta-harrixekin, egozen kanal horren ertzean, makiña bat herritarren erropak garbiketako: **Portalekuan**, **Lekunbarri** eta **Tetuan bittartian**, **Bidebarrietako ortuetan**, **Santa Ana komenturen esparruan** eta **San Juan Kaleko plazatzuan**.

Argazkixan ikusten dogun **presia** **1970 ingurura arte iraun eben**. Orduan aldaketa sakonak izan ziran **Portaleku alde horretan**. Etxaluze osteko poligonua egin zanian, kale, pasabide eta bidekurtze barrixak zabaldu ziran. Horren ondorioxoz, alderdi horrek beste itxura bat hartu eben eta **600 urtetik gora eukan presia orduantxe bota zan**. **Gerotxuago ezkutau ziran malatuaren azkenengo aztarrenak**, **Bidebarrieta** eta **enparauko etxe-pillia** jaso zanian

J. E.

Argazkixa, presia bota aurtxuan, J. L. Plazaolak 1960ko hamarkadan ataratakua izan leike, atzian Lezesarriko etxe barrixak ikusten dira-eta.

grupo
muebladora
mondragonesa

59 URTE ZUGANDIK GERTU,
ETXEKO GOXOTASUNA SORTUZ...



centro hogar MUEBLES

ZIGARROLA 1

TEL.: 943 71 10 12

ARRASATE



kaltxoi
leku

ZIGARROLA 1
TEL.: 943 79 15 03
ARRASATE

Sofa
leku

BANAK
Importa

ZERKAOSTETA 3
TEL.: 943 71 10 11
ARRASATE